

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-11-18  
ASTELEHENA  
430. ZENBAKIA  
10. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



LEIRE KORTABARRIA

**"Fagor Etxetresnen benetako egoera ezagutzeko kalkuluak egiteko unea da"**

**Urko Lopez**  
Ekonomia irakaslea eta ikertzailea | 8

Anthony Blake mentalistaren ezin sinetsizko saioak Elgetan | 29



Antzuolak 1-3 irabazi du UDAREN aurkako derbia | 22



Lur gainean entrenatu eta gero, elurretara doaz orain | 24

## 50 urteengatik!

Oñatiko Zuazola Institutuak mende erdian egindako ibilbidea ospatu zuen zapatuan | 2



Lehenengo eta gaur egungo irakasle, ikasle eta gurasoek parte hartu zuten ekitaldian, instituzioetako ordezkariekin batera, eta eurretako hainbat ageri dira argazkian, topa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

# Gizonezkoa larri zaurituta, bikotekideak leihotik behera bultza eginda Arrasaten

San Andres auzoan izan zen gertaera atzo, 07:30ean. Ertzaintzaren arabera, neskalagunak hirugarren solairutik behera bota zuen, leiho ondoan eserita zegoela bultza eginda. Gasteizko Santiago Ospitalera eraman zuten, larri; eta emakumezkoa atxilotu egin zuten. | 4

### SINADURAK

	OLANTZOLASO   10
	10   UBANE MADERA
	ENERITZ URRUTIA   15
	17   JAIONE CARPINTERO
	MARINA ETXEGOIEN   18
	19   OIER ARANTZABAL
	IMANOL GALLEGO   37
	40   ITXARO ARTOLA

**Gose grebako laugarren asteari ekingo dio gaur Txus Rodriguez presoak**

Elkartasuna azaltzeko manifestazioa egin dute Arrasaten | 6

**Oliba-olioz, gaztaz eta ardoz betetako bonboiak egingo dituzte Oñatin**

Natrak egingo ditu, eta Basque Culinary Centerrek errezetak | 7

☎ 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**Zure konfiantzako garbiketa enpresa**

**Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:**

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

# Oñatiarren eta gipuzkoarren institutua

50 urtean, hezkuntza-sistemen, oñatiarren eta bertan ikasi zuten beste hainbat euskaldunen bizitzaren zati bat izan da Oñatiko Institutua

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Orain 25 urteko beste urteurren borobil hartan ere jakinarazi zuten, baina askok ez dakite: Oñatiko institutua, gerora Rodrigo Mercado Zuazola institutua, geroago Zuazola-Larraña BHI,

Gipuzkoa probintziako lehenengo batxilergo institutua izan zen. 1963ko azaroaren 10ean inauguratu zen eta orduan bakarrik Donostian zegoen halako irakaskuntza-zentro bat, Peñaflorida Institutua. Oñatikoa haren filia-

la izan zen. Garai hartan Espainiako Hezkuntza Ministerioaren mende zegoen eta Instituto Nacional de Enseñanza Media de Oñate zen.

Gaur egun bitxia badirudi ere Gipuzkoako probintziako lehe-



**ERAIKIN POLITA** Oraingo eraikina 1968an hasi ziren egiten, ospitale zaharra eta Gereka Txokolateak lantegia zeuden lursailean. Sancti Spiritus Unibertsitatearen ondoan dago eta haren estilora egin zuten, ezohikoa hezkuntza zentro batendako. Egokitzapenak egin arren –irisgarritasun obrak egin zituzten orain gutxi–, itxura eta egitura berberak gorde ditu.

nengo institutu modernoa Oñatin egoteak, tradizio hori bazegoela azaltzen du Jerardo Elortza historialariak: "Oñatin, hiru edo lau alditan egon izan da batxilergo institutu bat. XIX. mendean, hiriburua zein zen ez zegoen garbi. 1840an, derrigorrez batxilergo ikasketen erakunde bat egon behar zen probintzia bakoitzean, eta Oñatiko institutu bat sortu zen". Erakunde *intermitentea* izan zen Oñatin, 1963ra arte.

Oñatiko institutuak hezkuntza-sistemaren gorabehera eta aldaketa guztiak bizi izan ditu eta denetara egokitu behar izan du. Hala, 1963tik 1980ra arte Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren mendeko irakaskuntza ertaineko institutua zen. 1980an, Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasa zen hezkuntza eskumena, eta baita institutua ere.

## 10 urterekin hasten ziren

Malen Imaz 50 urte horietatik 33an izan da institutuko langilea, 1979a ezkerro, eta horietatik 17tan zuzendaritzan izan da. Egunotako ospakizunetako antolatzailetaldean jardun du, nahiz eta iaz erretiratu zen. Berak bizi izan ditu aldaketa horietatik gehienak eta honela azaltzen du Oñatin institutu bat izateak zer ekarri zion herriari: "Herritarrendako izugarria zen batxilergo ikasketak herrian egin ahal izatea. Ni kanpoko naiz eta, batxilergoa egiteko, herritik kanpoko akademia batera joaten nintzen eta, urte bukaeran, nire kabuz, Donostiara, azterketak egitera, bi egunean. Oñatiko neska-mutilendako aukera bat izan zen institutua; eta Zumarragatik, Urretxutik, Arrasatetik, Aretxabaletatik, Eskoriatatik... etortzen ziren ere. Beste herri batzuetatik ere euren kabuz etortzen ziren: Altsasutik, Olaztegitik..." Eta urte askoan, autobusean etortzen ziren Legazpiko ikasleak institutura.

Batez ere lehenengo urteetan, ikasle asko izan zituen Oñatiko institutuak. Urte batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, oro har 2.500 ikasle gutxienez ibili izan direla esaten du Imazek.

Imazek bizi izan ditu ere Euskadiko hezkuntza sistemak, eta

beraz Oñatiko institutuak ere izan dituen aldaketak: "Hasiera-ko urteetan, 10 urterekin sartzen ziren ikasleak, eta sarrera-azterketa egin behar izaten zuten. Askotan, galderak sen onarekin erantzutekoak ziren. Katezismoa, geografia, matematika... gai askotako galderak izaten ziren. Garai hartan, Oinarrizko Batxilergoa egiten zen, bere errebalidarekin, eta gero, Goi Batxilergoa, hura ere bere errebalidarekin".

1975ean, beste ikasketak-plan bat hasi zen: BBB (gaztelaniazko BUP) hiru urtean, eta 14 urterekin sartzen ziren ikasleak; eta gero, UBI (COU) eta selektibitatea. Azkenik, 1998an hasi ziren gaur egungo planarekin.

Institutuko gaur egungo ikasleek –eta lehenengo askok ere– ez dute historia hori ezagutzen, eta, urteurrenaren harira, berau azaltzen ahalegindu dira.

## Beti itxura berarekin

Baina hezkuntza-sistemaren aldaketek gain –edo horiekin batera–, Oñatiko institutuak beste aldaketa batzuk bizi izan ditu.

Hala, bere lehenengo egoitza Sancti Spiritus unibertsitatean izan zuen. 1968an hasi ziren gaur egungo eraikina egiten, Sancti

## IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...

## AZARO MUSIKALA



Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00

Tokia: Arrasateko kaleetan zehar

## ESANAK

**"Oñatiarrendako izugarritzko aukera zen batxilergoa herrian ikasi ahal izatea"**

**"Hezkuntza ordezkariak esaten digute zein ondo eraikita dagoen institutua"**



**KULTURA ETA KIROLA** 1963tik 1980ra arte, institutua Sancti Spiritus Unibertsitatean zegoen. Goiko argazkia hango klaustroan aterata dago giza-xake irudikapen baten. Hasieratik, oso aktiboak ziren ikasleak, eta ezohiko kirol eta kultura ekintzak egiten zituzten, baita guraso eta herritarrendako emanaldiak ere: hitzaldiak, kantua, antzerkia...



**ERAIKIN BERRIAN** Institutua gaur egungo eraikinera pasatzea oso garrantzitsua izan zen. 1970an inauguratu zen, Reyes Korkostegi alkate zela. Handik gutxira ateratako argazki honetan, Iriondo laterandarra (institutuko irakaslea bera ere) laborategia bedekintzen agertzen da..



**OROITZAPEN ASKO** Oñatiko ikastola ere batxilergoa ematen hasi zen arte, bigarren mailako heziketa institutuan egiten zuten neska-mutil gehienek. Kanpotik zetozenak gehituta, 2.500 ikasle gutxienez izan ditu institutuak. Oroitzapenerako argazki askoren protagonistak izan dira, besteak beste ikasbidaian eta irteeretan ateratakoak.



ARGAZKIAK: INSTITUTUKO ARTXIBOA, ARLANZON, ARZUAGA, PLAZAOLA, NATXO SANTOS, INSTITUTUKO IRAKASLEAK

**BESTE 50 BAIETZ!** 1998an, bat egin zuten institutuak eta Larraña lanbide institutuak. Zuazola-Larraña BHI deitzen da gaur egun, eta Urgain eskola publikoaren zati bat da. Zuazola eraikinean, DBH eta Batxilergoko ikasketak ematen dituzte, eta Larraña eraikinean, Heziketa Zikloak eta irakaskuntza ez-arautua.

## Bitxikeriaz jositako historia

**ALDAKETAK** Hezkuntza Ministerioak sortu zuen; 1980an pasa zen Eusko Jaurlaritzaren ardurara. Hiru hezkuntza-plan bizi izan ditu.

**BAKARRA** Probintziako batxilergo institutu zaharrena da. Donostiako Peñaflores Institutuaren filiala zen.

**KANPOKOAK** Gipuzkoa osoko eta kanpoko ikasleak etorri izan dira Oñatira, tartean bere kabuz ikasten zebiltzan asko.

**JOAN-ETORRIAK** Espainiako eta Euskadiko irakasle piloak egon izan dira, baina beti egon dira Oñatiko irakasleak.

**ORDAINKETA** Lehen urteetan, hainbat irakasleri ikastetxeak ordaintzen zien, ez Ministerioak.

**EKINTZAK** Ikasleek eta irakasleek betidanik antolatu izan dituzte kirol, kultura eta aisialdi ekintzak. Hasierako urteetan, Koldo Mitxelena edo Aita Barandiaran etorri ziren hitzaldiak egitera.

**IZENA** 1980an izena aldatu behar zitzaion, eta eskolako arduradunek asmatu zuten Rodrigo Mercado de Zuazola Batxilergo Institutua izena.

Spiritus unibertsitatearen ondoan. Han, ospitale zaharra eta Gereka txokolate lantegia zeuden. Bi egoitza horiek bota eta eraikitze-lanak hasi ziren. Eraikin berezia da, ezohikoa batxilergo institutu batendako: "Unibertsitatearen antzekoa izateko dago eraikita, eta nik uste dut oso ondo eginda dagoela. Hemendik pasatu diren Hezkuntza delegazioko ordezkariak esaten dute zein ondo eginda dagoen. Aldaketa batzuk egin izan dira, behar berrietara egokitzeko; adibidez, hiru laborategi zeuden lehen eta bat, egokia, dugu orain; 2011n, igogailua ipi-

ni zen; baina beti eduki izan da eraikina itxura berarekin", esaten du Malen Imazek.

1998an, gaur egungo sistema ezarri zenean, bat egin zuten Zuazola batxilergo institutuak eta Larrañak, heziketa zikloak eta REM ikasketak ematen zituenak: "Plan berria ezarri zenean ez zuten zentzurik bi ikastetxe publiko egoteak, eta bat egin genuen", esaten du Imazek.

**Oñatiko irakasleekin hasi** Gipuzkoako institutu bakarretarikoa zenez, Oñatiko institutuko ikasleak leku askotakoak

ziren, baina irakasleak ere hala izan dira. Jose Juan Iraola izan zen lehenengo zuzendaria. Hasierako irakasle gehienak Oñatikoak edo ingurukoak ziren, tartean Oñatiko fraide agustinoak ere bai -Elena Valbuena literatura irakaslea eta Jesus Ortiz agustinoa, adibidez, oraindik bizi dira-, baina, denborarekin, beste leku batzuetatik ekarri zituzten lehenengo Hezkuntza Ministerioak -Kataluniako, Andaluziako, Galiziako, Extremadurako, Kanarietako eta beste leku askotako irakasleak pasa izan dira Oñatitik,

eta horietako batzuk ikastetxeak atezainarendako izendatuta zituen etxebizitzetan bizi ziren- eta gero Hezkuntza Sailak. Baina garai guztietan egon izan dira klaustroan Oñatiko irakasleak.

Aipatzekoa da ere 1975ean, BBB (BUP) zikloak hasi zirenean, euskara irakasgai gisa ezarri zutela. 1983-1984 ikasturtetik aurrera, batxilergoa euskaraz ematen ere hasi ziren. Oñatiko institutuko ikasleek 1986-1987 ikasturtean egin ahal izan zituzten lehenengo aldiz selektibitateko azterketak euskaraz.

### Jaiak, moda desfileak...

Institutu bizia eta parte-hartze handikoa izan da beti Oñatikoak. Hasierako urteetatik, kirol eta kultura emanaldiak, hitzaldiak... antolatu eta haien protagonistak izan dira Oñatiko institutuko ikasleak; eta askok gogoan izango dituzte ikasleek, irakasleen laguntzarekin, egiten zituzten Santo Tomas jaiak, Gabon aurreko ekitaldiak eta moda desfileak. Eta gurasoek ere, Guraso Elkartean edo eskola-batzordeko kide gisa, betidanik parte hartu dute institutuko bizitzan, zuzendaritzarekin lotura zuzenean. **4. orrialdean, jarraitzen du.**



## KIRURGIA OROKORREKO ZERBITZUA

### Tratamenduak:

- Barizeak eta arma arma baskularrak: eskleroterapia eta kirurgia
- Uzki-patologia: hemorroideak (HAL/RAR), uzki-fisura
- Abdomen-paretako herniak
- Behazun-maskuria ateratzea (kolezistektomia) laparoskopio bidez
- Azal-tumoreak: neboa, lipomak, kisteak
- Koloneko eta hesteetako patologia
- Urgentziako kirurgia

**QUIRÓN**  
OSPITALEA  
Donostia

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN  
Tel.: 943 43 71 00 | Tel.: 943 79 44 22

RPS: 122/09

[www.quiron.es](http://www.quiron.es)

## 3. orrialdetik dator.

## 50. urteurrena

Zapatuan egin zituzten urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusiak, besteak beste: bisita institutuko instalazioetatik, ekitaldi ofiziala eta bazkaria. Ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, garai bateko irakasleak, gurasoak, ikuskariak eta instituzioetako ordezkariak batu ziren.

Lehenik, bisita egin zuten instalazioetan. Hala, guztiek ere azken berrikuntzak ikusteko aukera izan zuten. Hain zuzen, orduantxe gertatu zen eguneko anekdota. Egungo institutuko irakasle bat arbel digitala zer den eta nola erabiltzen den azaltzen ari zenean, Elena Valbuena lehen ikasturteko irakasleak esan zuen: "Erraztasun gehiegi ematen dizkiezue egungo ikasleei eta irakasleek lan gutxiago egiten duzue". Zur eta lur utzi zituen guztiak. Instituzioen aurrean horrelakorik ez esateko esan zion egungo irakasle batek txantxetan, bestela, soldata jaitziko dietela-eta.

Bisitan, geletan sartu, ikasleen argazkiez eginiko bideoak ikusi eta pasilloetako argazki zaharrei begira egoteko aukera izan zuten. Gustura egon ziren asko garai bateko argazkiei begira, ea nor ezagutuko.

Lehen ikasturtean ikasle izandako Santi Mendiola esan zigun aldatu den bakarra dela proiektagailuak jarri dituztela; eta lehen, gurutzea eta Francoren argazkia zeudela gela guztietan.

## Ekitaldi ofiziala

Bisitaren ostean, ekitaldi ofiziala egin zuten institutuko aretoan. Bertan hitz egin zuten Oñatiko alkate Mikel Biainek, Hezkuntza Saileko ordezkari Gema Gonzalez de Txabarririk eta Zuazola institutuko zuzendari Leire Iturriozek. Biainek, besteak beste, Lomce legea kritikatu eta hezkuntzan ezin dela murrizketarik egin esan zuen. Gonzalez de Txabarririk zorionak eman zizkien lanean aritutako: "Zorionak 50 urte hauetan lanean aritu zareten guztioi. Izan ere, ikastetxetik bisita egin besterik ez dago, gauzak ondo egin direla ikusteko". Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko kabineteko zuzendari Jose Manuel Bujanda ere ekitaldian izan zen. Iturrioz zuzen-



Lehen ikasturteko Valbuena eta Iraola omendu zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL



Instalazioetan eginiko bisitan, pasilloko argazkiei begira. | J. ARANTZABAL

dariak eskerrak eman zizkien ekitaldira joandako guztiei eta institutuak bere ibilbide guztian izan dituen aldaketek ere mintzatu zen: "50 urte hauetan institutuak aldaketa asko bizi izan ditu. Guzti hau posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet".

Instituzioetako ordezkarien hitzen ostean, Sara Biain ikasleak gitarra klasikoaz bi pieza jo zituen.

## Jerardo Elortzaren hitzaldia

Institutuaren ibilbidearen eta historiaren xehetasun gehiago eman zituen Jerardo Elortza historialari oñatiarrak. Antzinako argazkiak ere erakutsi zituen, esaterako: 1963ko inaugurazio ekitaldikoa, laborategiaren bedein-

kaziokoa, lehen ikasturtekoa eta eraikin berriaren lanetakoak.

## Omenaldia

Lehen ikasturteko irakasle Elena Valbuena eta zuzendari Juan Jose Iraola ere izan ziren zapatuko ekitaldian. Omenaldia egin zieten. Euren garaietako bi ikaslek (Santi Mendiola eta Maria Isabel Biain) lore sorta bana eta lehen ikasturte hartako argazkia eman zizkieten. "Oso hunkituta nago eta eskerrak eman nahi ditut egin duzuen guztiagatik", esan zuen Valbuena. Amaitzeko, Maider Arregik lau bertso abestu zituen eta ostean talde argazkia atera zuten 50. urteurrenako ekitaldia ere historiaren parte bilakatu eta bilduman sartzeko.

# Gizonezko bat larri zaurituta, ustez bikotekideak leihotik behera bultza eginda

Arrasateko San Andres auzoan gertatu zen ezbeharra atzo; gizonezkoa larri eraman zuten

L.Z./I.G. | ARRASATE

Ertzaintzatik jakitera eman dutenez, 27 urteko emakume bat atxilotu zuten atzo 07:30ean, hilketa saiakera leporatuta. Ustez bikotekidea hirugarren solairutik behera bota zuten. Gizonezkoa J.A. inzialdun gazte aretxabaletarra da. Ezbeharra San Andres auzoko Leintzibar kalean gertatu zen.

Lehenengo ikerketaren arabera, bikotea eztabaidan ari zenean gertatu zen gertakaria. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakitera eman duenez, "gizonezkoa irekita zegoen leiho baten kontra eserita zegoen eta emakumezkoak bultza egin zion". Horren ondorioz, hirugarren pisutik behera erori zen gizonezkoa. Ertzaintzak lurrean etzanda aurkitu zuten eta haren

ondoan 27 urteko emakumezkoa.

## Santiago ospitalera

Gizonezkoa larri zaurituta zegoen, Ertzaintzaren jakinarazpenak dioenez. Hala, ambulanzian eraman zuten Gasteizko Santiago Ospitalera. Goiena ospitaleko arduradunekin harremanetan jarri zen eta esan ziguten ez zutela adierazpenik egingo.

## Emakumea atxilotuta

Emakumezkoa atxilotu egin zuten, hilketa saiakera leporatuta. Ikerketak aurrera jarraitzen du. Ertzaintzatik jakitera eman dutenez, aurrekari polizia dituen emakumezkoak polizia-agenteei aurre egiteagatik.



Ezbeharra gertatu zen toki, prezintatuta. | IMANOL SORIANO



SERGIO AZKARATE

## Iritsi da elurra mendi tontorretara

Denboraldiko lehen elur malutak erori ziren egubakoitzean. Mendi tontorretan ez ezik, beherago ere bota zuten, besteak beste, Arantzazun, Elgetan, Leintz Gatzagan eta Aramaion zuritu zuten. Egun horretan aurkeztu zuten Neguko Mugikortasun Plana Aldundiak.



50. urteurren ekitaldikoko talde argazkia atera zuten institutuaren aurrealdean. | JOSETXO ARANTZABAL



Ordaindu plataformako kideek eginitako batzarreko une bat. | ANE ETXEBERRIA

# Mobilizazioak nagusi, konkurtsoaren aurrean langileen egoera salatzen

- ▶ Ordainduko kideek elkarretaratzeak egingo dituzte eguenero Biterin
- ▶ Azpeitiko Grumaleko langileek ere protestekin jarraituko dute

A.E./G.A. | ARRASATE

Ordaindu plataformako kideek batzarra egin zuten pasa den astean hartzekodunen konkurtsoan sartu izanak langileei nola eragiten dien hausnartu eta kezak argitzeko. Batzar horretan, plataformako kideak eta abokatuak izan ziren, legalki eman beharreko pausoz hitz egiteko. Halaber, azken asteetan, plataformak emandako aurrera pausoen inguruan mintzatu zen Mikel Olabe plataformako kidea. Mondragon Korporazioari eta Fagorri arduraz jokatzeko eskatu zien, "egoera honen aurrean erantzukizuna dutelako". Langileek eginitako ekarpen boluntarioak berreskuratzeko fondo bat sortzeko eskaera egin dute Ordaindu plataformakoek; horretarako, "Txema Gisolarekin elkartu nahi izan dugu, gure egoeraz hitz egiteko", baina, diotenez, "ez dugu biltzeko aukerarik izan". Arantza Tapia eta Juan Mari Aburto sailburuekin egoterik izan dute, ordea, eta "euren aldetik egin dezaketen guztia egiteko eskaera egin diegu, eurek harreman zuzenagoa dutelako Korporazioko zuzendaritzarekin", adierazi zuen Mikel Olabe plataformako kideak.

## Presio ekintzak eguenero

Eguenero 18:00etatik 19:00etara Biterin elkarretaratzeak egiteko proposamena aurrera atera zen aurreko asteko batzarrean: "Presio moduan kalera atera behar dugu, eta denok hartu behar dugu parte", zioen Olabek. Halaber, Legebiltzarrerera joango direla ere

jakinarazi dute, izan ere, talde partalmentario baten gonbita izan dute. Hala, parlamentarien aurrean euren egoeraz hitz egiteko aukera izango dute nahiz eta oraindik data zehatzik ez duten. Egun horretan kontzentrazioa ere egingo dutela adierazi dute plataformakoek. Plataforma legez-



Grumaleko langileak Arrasaten eginitako elkarretaratzean. | IURE EIZAGIRRE

JUAN BARRERO | ABOKATUA

## "Fagorreko kasuan, konkurtso maila desberdinetan egongo dira langileak"

Juan Barrero Ordaindu plataformako abokatu da.

### Zer da hartzekodunen konkurtsoa?

Enpresa batek dituen zorrak kitatzeko dirurik ez duenean, egoera txarrean dagoenean, hartzekodunei deitu eta zor duenaren kopuruan murrizketa bat lortzen saiatzen da egoerari aurre egin ahal izateko. Epaiak administrazioarekin tratatzen du ondutasunak kudeatu eta enpresaren bizi-iraupenaz erabakiak hartzeko.

### Langileei nola eragiten die?

Hartzekodunen barruan hiru mota daude: pribilegiatuak, hau da, lehenengo kobratuko dutenak, instituzioak, administrazioa...; bigarren mailan, kreditu ordinariorak sartzen dira; eta azkenik, subordinatuak direlakoak. Hemen dauden pertsonak azkenak izango dira kobratzen eta dirua ikusiko dute aurreko guztiek kobratu ondoren zerbait gelditzen bada, hau da, zailena dutenak dira hemen kokatzen diren langileak.

### Eta Fagorren kasuan?

Azken bi mailatan kokatuko dira

langileak. Hau da, batzuk kreditu ordinarioren mailan sartuko dira eta beste asko azkenengo mailan. Kreditu merkantilak dituzten guztiak erdiko mailan kokatuko dira, beraz, kobratzeko aukera gehiago izango dituzte. Preferenteak dituztenek, aldiz, ez dute konkurtsoaren bidea jarraituko kobratzerako orduan, hauek erreklamazioen bidea jarraituko baitute. Bankuetan erreklamatu beharko dute eta, beraz, aukera gehiago izango dituzte euren dirua berreskuratzeko.

### "Pribilegiatuak kobratu ostean, Fagorreko langileen txanda izango da"

tan erreklamatu beharko dute eta, beraz, aukera gehiago izango dituzte euren dirua berreskuratzeko.

### Kobratzeko aurreikuspena...

Ezin dugu esan euren diruaz haztu beharko direnik, baina bai esan dezakegula zerbait geratzen bada, hau da, lehen eta bigarren mailan kokatzen direnek dirua jasotzen dutenean, geratzen den guztia banatu egingo dela. Oinordetza jasotako akzioen onuradunak, aldiz, bigarren mailan sartzen dira. Hauek erreklamatu dira jada eta aukerak izango dituzte euren dirua lortzeko. Behin behineko langileek, aldiz, Fogasatik kobratuko dute.

tatzeko nahia ere adierazi dute eta horretarako beharrezko konpromisoak hartuko dituzte.

### Grumalekoen elkarretaratzea

Azpeitiko Grumal enpresako langileak Arrasaten izan ziren egubakoitzean, euren egoeraren berri emateko. Izan ere, Grumal enpresako akzioak dituzte Fagor Etxetresnek eta, beraz, eurak ere "kaltetuak" ateratzen dira. Horrela bada, Mondragon Korporazioko zuzendaritzari exijitzen diote "ireki dezala Grumaleko sindikatuekin komunikazio ate bat, jar dezala baliabide plan bat mahai gainean eta har ditzala konpromiso zehatzak enplegua mantendu ahal izateko".

Ordu erdi inguruz Korporazioren egoitzaren aurrean kontzentratuta egon ziren Grumaleko langileak eta Enpresa Batzordeko presidente Patxi Isasmendi egoitza barrura sartu zen langileen eskariak laburbiltzen zituen orria uztera. Grumal Fagor Etxetresnen taldeko enpresa dela eta "Mondragon Korporazioak enpresaren kudeaketan erantzukizuna" duela adierazi zuten. Zentzu horretan, euren ere ez dietela zuzeneko informaziorik eman salatu zuten, bilera eskariek ez dutela erantzunik izan gaineratuz.

"Grumalek ez du eskatzen diru publikoaren bizkar gure aktibitatea mantendu ahal izatea. Mantendu behar dena enplegua da", adierazi zuen Isasmendik. Horretarako, "Korporazioak, besteak beste, bideragarritasun plan bat zehatu beharko du; eta Kutxabanke eta Euskadiko Kutxak, hain eskasa den finantzazioa

eman". "Diru publikoa, berriz, enplegua eta industrializazio politika orokorra garatzeko erabili beharko da", esan zuen Isasmendik. Halaber, Arrasateko eta Basauriko langileengandik jasotako babesak eskertu zuten.

### "Aurrera egiteko lanean"

Testuinguru horretan, baikor azaldu da Fagor Etxetresnetako lehendakari Xabier Bengoetxea, *Tu Lankide* aldizkariak bere webgunean aurreratu duenez: "Lortuko dugu aurrera egitea. Argi dagoena da orain arte ezagutu dugun Fagor Etxetresnak ez dugula berriz ikusiko, beste zerbait izango dela etorkizunean. Gure eskutan dago, ahal den neurrian, errentagarria dena mantentzea eta horretan jarri behar dugu ahalegina". "Momentu honetan, garrantzitsuena pertsonen ardurari irtenbide bat ematea" dela dio eta hori dela euren lehentasuna, "informazioa eskaintzea eta ahal bada, lasaitzea". Bere hitzetan, "dagoeneko gauzak mugitzen ari dira eta hurrengo lau edo sei hilabeteotan hainbat aurrerapauso nabarituko dira". Fagor Taldeko beste kooperatibei, bestalde, eskerrak eman dizkie azken urteotan "laguntza finantzario izugarria" eman dietelako eta "bazkideak birkokatzen ere laguntza handia" izaten ari direlako.

### EKGK-ren oharra

Fagor Etxetresnek bizi duten egoera honen harira, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak prentsa-oharra bidali du komunikabideetara.

**6. orrialdean, jarraipena.**

## 5. orrialdeak dator.

Hain zuzen, "egoera zail honetan krisialdia gehien pairatzen ari diren kooperatibetako bazkideekin solidario izateak duen balioa" azpimarratu nahi izan dute Euskal Autonomia Erkidegoan kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko organo gorenaren kontseilutik. Horren haritik, erakunde publikoa direnez eta ordezkatzeko dituzten sektoreekin lankidetzan, "gizarte-kostua ahalik eta txikiena izan dadin ekinbideak bultzatuko" dituztela diote, eta "Euskadiko kooperatiba-mugimendua indartzen lagunduko" dutela, uste osoa dutelako balio kooperatiboak indarrean daudela bete-betean. Dena den, uste dute balio horiek berrinterpretatu beharra dagoela bazkideentzat eta kooperatiba bakoitzean parte hartzeko dauden organoentzat, "inoiz pentsatu eta nahi izan gabeko egoeren aurrean".

Sinetsita daude, bestalde, euskal kooperatiba-mugimenduari etorkizuna bestelakoa izango dela, baina, edozein erataria, itxaropentsua.

**Ehunka enpresa**

Ezkorrago agertu zen Iñigo Urkullu lehendakaria egubakoitzean, EH Bildu, PSE-EE eta PPri erantzunez, Legebiltzarrean egindako adierazpenetan. Fagorren krisiaren eragina ehunka enpresek eta milaka langilek sumatuko dutela azaldu zuen. Ondorioak gaituzte "gogorra eta kostu handikoa" izango dela adierazi zuen, eta "bideragarriak diren Fagorren zatiei eusteko Gobernuaren laguntza" izango dutela berretsi.

**Hartzekodunen konkurtsoa**

Aurreikuspenak betetzen badira, Fagor Etxetresnek gaurtik aurrera eramango dituzte konkurtsoa Edesa eta Grumal. Bitartean, bere enpresa nagusirako eguaztenez aurkeztutako txostena auzitegiak tramitara onartzeko zain jarraitzen du.

# Jakiundeko hiru kide berriak euren karguak hartu dituzte

Apirilean izendatu zituzten Jose Luis Larrea, Miguel Zugaza eta Victor Gomez Pin akademiako kide berri

I.G./I.E. | BERGARA

Apirilean izendatu zituzten Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiako kide Jose Luis Larrea, Ibermaticako presidentea; Miguel Zugaza, Prado museoko zuzendaria; eta Victor Gomez Pin, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Filosofia katedraduna. Oraindik kargua hartzeko zeuden, ordea, eta egubakoitzean akademiak egin zuen ohiko batzarra aprobetxatu zuten horretarako.

Jakiundeko presidente Jesus Mari Ugaldek eman zion hasiera bilerari, irailean zendutako Jean Haritschelhar euskaltzain eta Jakiundeko kidearen irudia goraiatu eta hark landutako ondarea gogora ekarri.

Ugalderen ostean, Donostia Unibertsitate Ospitaleko Neurologia Zerbitzuko buru Jose Felix Marti Massok hartu zuen hitza eta berak eskaini zuen irekiera hitzaldia. Honen amaieran heldu zen jakitun berriek euren kargua hartzeko momentua. Orain arteko kide guztiak egin duten moduan, diploma eta akademiako ikurra jaso zuten Larrea, Zugaza eta Gomez Pinek.



Jakiundeko kideak egubakoitzeko batzarrean. | IMANOL GALLEGO

Hirurek azaldu zuten, Jakiundeko kide izatea proposatu zuten zurrara berezia sentitu zuten eta, beste kideak kontuan hartuta, kide izatea "eurentzat ohorea dela" gaineratu zuten.

**Profil ezberdinak**

Enpresa, arte eta filosofia arloko profesionalak dira hiru kide berriak. Larrea Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta Eusko Jaurlaritzako Ogasuna eta Finantza sailburua izan

zen. Zugaza, Geografia eta Historian lizentziaduna, Reina Sofiak zuzendariorde eta Bilboko Arte Ederretako zuzendari izan zen. Gomezek, azkenik, Filosofia ikasi zuen eta harremana du EHU, Diderot eta Veneziako unibertsitateekin.

Egubakoitzeko kargu-hartzeekin, Jakiunde amaitutzat eman du diziplina anitzetako pertsonalitateen eransketa eta egonkortze prozesua. Gaur egun 59 pertsona dira akademian.



**JOSE LUIS LARREA**  
ENPRESA

"Ohorea da akademia honetako kide izatea. Kide asko ezagutzen ditut, gehienak, irakasle gisa. Akademiaren helburuak betetzeko konpromisoa dut".



**MIGUEL ANGEL ZUGAZA**  
ARTEA

"Akademia honen originaltasuna bere aniztasunean ikus daiteke. Hemen, normalean banatuta egoten diren arloak elkartu egiten dituzte. Oso ona da hori".



**VICTOR GOMEZ PIN**  
FILOSOFIA

"Filosofiak letra eta zientzietatik edaten du baina, nire ustez, esangura ere ematen die. Arlo bakoitza, filosofiarik gabe, ezerezean galduko litzateke".

## Gaur hasiko da Goiena Klubeko bazkide egiteko kanpaina berria

E.A./I.E. | ARRASATE

Jakina da prentsaren egoera, areago euskarazkoarena, ez dela samurra azken urteetan. Egora horri aurre egiteko herritarren elkartasuna eta babesa bilatzea izaten da sarri irtenbidea.

Gauzak horrela, Goiena Komunikazio Taldeak Goiena Klubeko bazkide berriak egiteko kanpaina berezia abiatuko du gaur. Hain justu ere, gaur egun Egubakoitzeko Goiena paperekoa jasotzen dutenen etxetara deituko da, Asteleheneko Goiena ere jasotzea gustatuko litzatekeen jakin eta horren abantailak azaldu asmoz.

Urtean 50 euro ordainduta, besteak beste, Asteleheneko Goiena papera jasoko dute etxean. Bazkide berriek, lehenengo batera, eskualdeko euskarazko hedabideekiko atxikimendua erakutsiko dute, beraz, hilean bost euro baino gutxiago ordainduta. Bestelako abantailak ere izango dituzte: deskontuak zenbait produktu eta zerbitzutan, sari ezberdinak eskuratzeko aukera asteroko zozketan...

Gainera, Goiena Klubeko bazkide berriek doan jasoko dute, 2013 amaiera arte, Asteleheneko Goiena eta iPad baten zozketan sartuko dira.

Bazkide berriak egiteko kanpainak abenduaren 20ra arte iraungo du.

**Ezinbesteko ekarpena**

Azken urteotan publizitate eta diru-laguntza publiko bidezko diru-sarrerak murriztu egin dira eta horregatik da ezinbestekoa Goienarendako irakurle, ikus-entzule eta erabiltzaileek euren ekarpena egitea.

## Gose greban dagoen Txus Rodriguez presoari berotasuna adierazi diote

Egubakoitzean manifestazioa egin zuten eta martxa abiatu zen Sevillara

I.E. | ARRASATE

Dozenaka herritarrek hartu zuten parte egubakoitzeko manifestazioan, gaur gose grebako laugarren asteari ekingo dion Txus Rodriguez preso arrasatearrari babesa eta berotasuna adierazteko.

Seber Altube plazan hasi eta herriko kale nagusiak pasa zituen Arrasateko hainbat eragile politiko eta sozialek *Salbuespenezko espetxe politika eten! Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean deitutako manifestazioak. Amaieran, Sevilla II espetxean gose

greban dauden hamahiru presoekiko eta euren senideekiko elkartasuna adierazi, espetxeko bizibaldintzak hobetzeko aldarrikatu eta Espainiaren zein Frantziaren espetxe-politika salatu zuten antolatzaileek.

Rodriguezaren bikotekide Onintza Lopez de Munainek azaldu zuenez, "presoa gero eta ahulago dago, telefonoz berba egiterakoan nabari zaio indar falta, ahotsa oso baxu entzuten zaio. Psikologikoki, ordea, ondo dago eta gauzak argi ditu".

**Sevillara martxa**

Gose greban dauden presoek elkartasuna bertatik bertara adierazteko martxa egin dute asteburuan Sevilla II espetxera. Arrasateetik egubakoitzean abiatu ziren.

Euskal Herriko zenbait herritako jendeak hartu zuen parte martxan, guztira, 80 bat pertsonak. Poliziak oztopoak jarri zizkien eta hara bertaratutako guztiak identifikatu zituen. Gainera, espetxearen kanpoan txalaparta jotzeko eramandako makilak kendu zizkieten.



Egubakoitzeko manifestazioko une bat. | IMANOL SORIANO

# Oliba-olioz, gaztaz eta ardoz betetako bonboiak egingo ditu Natrak Oñatin

Basque Culinary Centerrek sortuko ditu erreilenoen errezetak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Center fakultateak eta Oñatin lantegia duen Natra enpresak oliba-olioz, gaztaz eta ardoz betetako bonboiak diseinatzeko eta egiteko hitzarmena sinatu dute. Bonboi horiek Oñatiko lantegian egingo dituzte eta jatorri-izendapena izango dute. Natrako kontseilari delegatuak, Mikel Beitia oñatiarrak, eta BCCko zuzendariak, Joxe Mari Aizegak, sinatu zuten hitzarmena joan den eguaztean. Urte baterako da hitzarmena.

Bederatzi hilabetez, azterketa bat egingo dute biek. BCCk erreilenoaren formula egingo du eta bonboiak diseinatuko ditu, eta Natrak, haiek ekoiztu. BCCk erreilenoen 90 errezeta aukeratu ditu ardo, gazta eta oliba-oliozko erreilenoak egiteko. Gero, mota bakoitzeko bonboien analisi sensorial eta organoleptikoak egingo ditu, BCCk eta Natrak adostu duten kontsumitzaile-profilarendako gustukoena aukeratzeko. Natra



Mikel Beitia, Natrako kontseilari delegatua, eta Joxe Mari Aizega, BCCko zuzendaria. | VK COMUNICACIÓN

enpresak Oñatiko lantegiko baliabide teknologiko eta produktiboak ipiniko ditu.

Mota eta kultura askotariko kontsumitzaileekin asmatu nahi da; esaterako, Asiako merkatuan

sartzeko aukera aztertzen dabil. Gero eta txokolate gehiago kontsumitzen da Asian, batez ere gama altukoa, eta dieta mediterraneoko produktuak gero eta estimatuagoak dira.

## Ipar Amerikara eta Asiar

Natra enpresak esan duenez, BCCrekiko hitzarmenak euren dako interes estrategikoa duten hainbat alderdirekin zerikusia du, hala nola bere eskaintza gara-

tzeko berrikuntza, Europatik kanpo haztea -batez ere Ipar Amerikan eta Asian- eta kalitatearen eta osasuntsu jatearen aldeko konpromisoa.

Mikel Beitia esan duenez, lehenengo aldia du Natrak unibertsitate-zentro teknologiko batekin elkarlanean, eta "jatorria geografiko berbera eta bokazio internazional handia" duten bi erakundeen arteko elkarlana dela esan zuen. Bien arteko elkarlan horrek gastronomia arloan duten "ezagutza-sinergia eta esperientzia-sinergia esplotatzeko" balio izango duela ere esan zuen. Gaineratu zuen ezohiko motibazioa dela euren dako normalean txokolatearekin batera kontsumitzen ez diren baina "gure kultura mediterraneoan hain sustraituta" dauden produktuekin lan egitea.

## Burtsan, oso indartsu

Azkenaldian oso ondo dabil Natra burtsan, eta azken egunotan 2010eko maximoetan kotizatu da. Orain bi aste 2,68 euroko maximoak izan zituen, iaz 1,6 milioiko galarak izan zituela jakinarazitakoan pixka bat jaitsi eta gero. Aurten % 169 irabazi dute bere akzioek dagoeneko, eta 116 milioiko kapitalizazioa du enpresak. Burtsan adituen erosteko gomendio gehien dituen enpresetako bat da.

Bi adar ditu Natraren jarduerak: industrial, kakaoa lehengai gisa erabiltzen duten enpresendako; eta kontsumo-ondasunena, txokolatezko produktuak egitea, besteak beste.

## Kamioien bidesarien proiektua Batzar Nagusietan dago

EAJ aurka azaldu da; PSE-EEK eta PPK ez dute aurkako jarrera azaldu, baina zalantzak agertu dituzte

L.K. | ARRASATE

Kamioendako bidesariak ezartzeko proiektua Batzar Nagusietan dago, Foru Aldundiko Gobernu Batzordeak onartu eta gero. Arau horren bitartez, 26 milioi euro jaso gura ditu Aldundiak.

Batzar Nagusietan EH Bilduk ez du gehiengoa. EAJ garbi azaldu da proiektuaren aurka; PSE-EE eta PP ez dira aurka agertu, nahiz eta zalantza batzuk azaldu.

### Deskargan ere bai

Kamioiei bidesaria kobratzeko akordioa nahi du EH Bilduk eta egitasmoaren aldeko jarrera eska-

tu zien joan den astean oposizio-kideei. Izan ere, koalizioko ordezkarien esanetan, egoera esaten dena baino larriagoa da, ez dutelako nahikoa baliabide errepedeen mantentze lanetarako eta, ezer egin ezean, 2015. urtean 10 milioi euro jarri beharko direlako Bidegiren zorrari aurre egiteko -900 milioi euroko zorra.

Hamalau arku jarri nahi dituzte errepede sare nagusian: A-15 autobidea (Nafarroa-Gipuzkoa), N-121 (Iruñea-Irun), N-1 (Madril-Irun) eta G-632 (Deskarga). Araua onartu eta 12 hilabeteren bueltan martxan nahi dituzte.

*Bidesaririk ez!* mezutik datozela onartu zuen Ugarte diputatuak, baina gaineratu du arazo "handi" bat dagoela eta "axolagabekeria" litzatekeela beste alde batera begiratzea.

Garraiolarien sindikatuak hasieratik azaldu dira proiektuaren kontra.

### Egindako kilometroen arabera

Foru Arau proiektuaren xehetasun batzuk eman zituen Ugartek. Hala, ibilgailu astunei eragiten die soilik, eta Gipuzkoa zeharkatzen duten kamioien % 75 ez dira Gipuzkoakoak.

A-15 autobidean hiru arku jarriko dira; N-I errepedean, zazpi; N-121-A errepedean, bat; eta GI-632 errepedean, hiru. Sistemak bi eratan identifikatzen ditu ibilgailuak: Via-T gailuen irakurketa eta matrikulen irakurketa automatikoa.

Egindako kilometroak kobratuko zaizkio erabiltzaileari. Errepide eta ibilgailu kategoria bakoitzak tarifa bat izango dute.

Ohiko erabiltzaileek deskontua izango dute: norabide bakarrean 15 bidaia edo gehiago egiten dituztenei lehenengo bidaiatik hasita egingo zaie deskontua.

## Iaz baino %4,3 gehiago batu da orain arte zergetan

Urriaren 31ra arte, iazko epe berean baino %4,3 gehiago batu du Foru Ogasunak zerga bidez. Aurrekontuetan, %4,4ko igoera onartu zuen Foru Aldundiak.

Zerga motaren arabera, zuzeneko zergetan %2,4 diru gehiago batu da iazko lehenengo 10 hilabeteetan baino, eta zeharkakoetan, %6,7 gehiago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen BEZ zergarekin %9,7 gehiago batu da; Ondare Zergarekin, %26,8 gehiago; eta Sozietateen gaineko Zergarekin, %6,5 gehiago.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

**Urko Lopez** | MUko Ekonomia irakaslea eta MIKeko ikertzailea

# "Orain ikusiko da Fagor Etxetresnen benetako egoera; orain da kalkuluak egiteko unea"

- Urko Lopezen esanetan, behin konkurtsoa hasita argituko dira zalantza guztiak
- Ekonomia gai orokorrez ere erantzun digu; besteak beste, interes tipo berri baxuez

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Ekonomia irakaslea eta MIKeko ikertzaile Urko Lopezen esanetan, konkurtsoa hasi den honetan eman ahal izango dira Fagor Etxetresnen gaineko benetako zifrak.

**Kalkulu ekonomikorik egin duzue, Arrasaten eta eskualdean ze eragin izango duen Fagor ixteak?**

Zaila da horrelako kalkuluak egitea, egunero berri desberdinak dituzunean. Denetarik entzun dugu: erabat likidatuko dela; Edesa bere kabuz joan zitekeela, eta azkenean ikusi dugu ez dela horrela izango; osorik ez bada, zati batzuk salba daitezkeela... Balorazioak hemendik aurrera has daitezke, jakinda Fagor Etxetresnak osorik dagoela konkurtsoan.

Bestetik, ikusi behar da euren hornitzaileetatik zeintzuk diren nahikoa indartsuak Fagor gabe jarraitzeko, eta zeintzuk ez.

Beraz, aurrerantzean ikusiko da zein den Fagor Etxetresnen benetako egoera. Kalkuluak egiteko momentua da orain, eta ez orain arte. Oraindik izango duguna jakin gabe kalkuluak egitea paniko egoeran sartzea izango litzateke. Errespetuagatik ere, izan ditzakegun zifra asko ezin ditzakegun esan, jakin gabe zein den behin betiko egoera.

**Zor handiak utzi dituzte, baita erakunde publikoekin ere, Ogasunarekin, adibidez. Zer gertatuko da zulo horiekin?**

Hartzekodun nagusia beti sektore publikoa izaten da. Esaten da oso gutxi dela Gizarte Segurantzarekin dagoen zorra; gehiago dela BEZaren zorra. Lehenik eta behin, ikusiko da zer gertatzen den Ogasunarekin. Kopuruak oso altuak izan arren, zati nahiko txikiak dira aipatzen diren 800 milioi horien barruan.

Hartzekodunen artean, denetarik egoten da: Ogasuna bera; bestetik, hornitzaileak; kreditu erakundeak... Eta bazkideak langileak dira, baina, aldi berean, enpresaren kudeatzaileak eta hartzekodunak dira; azkenak zerrendan, aukera gutxirekin, baina hartzekodunak hala ere, enpresaren jabe izan arren. Bestetik, ekarpen subordinatuak hor dauzkagu eta ezin ditugu ahaztu. Ikusi behar da zelan konposatzen den hartzekodunen multzo hori.

Konkurtsoak luzeak izaten dira, eta gogoan izan behar dugu pertsonak daudela tartean: Fagorreko bazkideak direnak, aldi baterako langileak, hornitzaileak eta euren lanpostuak Fagorren etorkizunaren mende dituztenak.

Eta familiak ere hor daude. Konkurtsoa luzea izateak oso eragin negatiboa du, batez ere itxaron behar izate horretan. Berez txarra da enpresa bat konkurtsoan sartzea, baina alde ekonomiko horri giza faktorea gehitzen badugu, oso koktel garratza sortzen da.

**Hartzekodunen lehiaketak beti enpresa ixtea dakar?**

Ez du zertan. Hori bai: helburua likidazioa baldin bada, seguruenik itxiera gertatuko da.

Orduan, Fagorren kasuan, zer? Ni ez naiz gai horri erantzuteko. Hemendik aurrera hasiko gara jakiten, pixkana-pixkana. Orain arte, lehenengo, kolpe ekonomikoa etorri da: ez da bakarrik Fagor Etxetresnak erortzen, baizik eta Euskal Herriko etxetresnen enpresa garrantzitsua, estatukoa ere bai. Bigarren: zer gertatuko da bazkideekin? Birkokatzeak, kapitala, zeren erantzule diren eta zerena ez... eta horri giza-faktorea gehitu behar zaio. Orain arte, behin kartak mahai gainean egonda eta jakinda zerekin egiten den lehia hori eta zerekin ez den egiten.

**Ekonomia ikuspegitik, zure ustez, soluziorik onena zen hartu dena?**

Oso zaila da ikustea non zegoen arazoa edo non egon zen; akaso ez da kopuru baten arazoa, joera batena baizik: eraikuntza behera badoa, etxetresnak ere bai; bestetik, barne-joera bat, komentatu da-eta kudeaketa ez dela izan behar zena izan. Orain jakingo dugu ea benetan neurri onena zen, ekonomia ikuspegitik. Kasu batzuetan, konkurtsoan sartzea da eragin-kortasun ekonomiko aldetik erabaki onena. Baina kontuan hartzen badugu jendeak lanpostua gal dezakeela, ez dakit ze puntura arte den positiboa. Erabaki beharrezkoa bat izan daiteke; hartu beharreko erabakia, beste bat; eta positiboa, beste bat, eta guztien artean talka egiten dute.

**Ezinbestean, Txinan edo Europako ekialdean egin behar du ekoizpena euskal enpresa batek?**

Zergatik goaz atzerrira? Joan behar dugu merkatua izan dezakegulako; bestetik, hemen produzitzea eta hara eroatea erabat bideragarria ez delako; bestetik, akaso hornitzaile on batzuk dauzkagulako kokatzen garen lekuan; edo hemen zaharkituta dauden baina beste leku askotan oraindik merkatua duten produktuak ditugulako. Lehenik eta behin, zergatik goazen ikusi behar dugu.

Bigarrenik, hainbat enpresa hemen daude eta atzerrian ere bai, aldi berean. Doktore-tesi



Urko Lopez, ikertzaile eta irakaslea. | LEIRE KORTABARRIA

**"Akaso, balio erantsi handikoa bakarrik produzitu behar dugu hemen"**

**"Trantsizio hori oso poliki egin dugu eta akaso azkartu egin behar dugu"**

**"Deflazioarekin, lehiakortasuna galtzen dugu beste herrialdeekin"**

batek esaten du atzerrira joateak bertako lanpostuei eusten laguntzen duela.

Eta azken faktore bat dago, oso garrantzitsua: akaso, bertan beste gauza bat egitera ohitu behar gara. Orain arte, sektore tradizionalak oso enfokaturako ekonomia izan dugu. Etxetresnak ere oso tradizionalak dira. Beharbada hemen gama altuena egin behar dugu; beharbada lan-txanda bakarra izan behar dugu. Beharbada, atzerrian produzitu beharrezkoa balio erantsi txikiena duena da, eta bertan balio erantsi handia duena, teknologia maila handikoa; baina horrek urteak behar ditu. Hasi gara aspaldi, baina oso poliki joan gara, eta orain ikusi dugu akaso azeleratu egin behar dugula aldaketa hori.

**Beste gai batzuetara joanda, Europako Banku Zentralak %0,25era jaitsi ditu interes tipoak, deflazio beldurra zegoelako.**

Orain arte, EBZk interes tasak beti eduki ditu altu samar, inflazioa kontrolatzeko; bere lehenengo helburua inflazioa kontrolatzea da. Inflazioaren arazoa konpontuta dago, oraingoz. Orain justu kontrakoa gertatzen da; prezioak txikitu egiten dira, eta produktore gisa arazoa daukagu, gure marjinak ere txikiagoak direlako eta, konparatiboki, beste herrialde batzuetako ondasunak guretatik ez dira hain eskuragarriak. Gainera, ikusi behar genuke deflazioak nola eragingo lukeen euroan. Eragin hori ikusten badugu eta euroa oraindik kaltetuago irteten bada, oso erraz gal dezakegu lehiakortasuna. Inflazioa ez da behar, baina deflazioa ere ez.

**Lehiakortasuna Europa gisa, beste herrialdeekin edo Europako beste herrialdeekin galduko genuke?**

Biak. Europa barruan herrialde bakoitzari deflazioak nola eragiten dion ikusi behar litzateke. Agian, herrialde batek oso ondo aguantatu dezake deflazio egoera hori, baina beste batzuek egundoko arazoak izan ditzakete, eta Europak orokorrean ere bai.

**Euskadin bikoiztu egin da, lau urtean, Diru-sarrearen Berme Errenta jasotzen duten herritarren kopurua.**

DBE ez du inork bizioagatik kobratzen, beharizanarengatik baizik. Jende askok diru hori behar du. Gero, denetarik entzuten dugu: hark mutur gogorra duela, lurpeko ekonomia asko dagoela... Elkarbizitzen ari diren bi gauza dira, baina hala ere, DBE agertzeak eta jasotzaileak laukoizteak esan nahi du gure ekonomia gaizki doala, eta gizarte aldetik degradazio bat gertatzen ari dela. Jendea pobretzen ari da, eta gero eta geruza pobreago bat daukagu.

**Egia da krisi teknikitik irten garela?**

Euskal Herrian, orain komentatu dugun egoera kontuan hartuta, ezin dezakegun esan oso ondo gaudenik. Moralki ukituta gertatu gara. Fagor, tamalez, erori den beste enpresa bat da, eta Euskal Herrian hainbat enpresa erori dira azken hiruzpalau urteetan. Estatu espainolaren kasuan, oraindik asko falta zaio krisi tekniko horretatik irteteko. Ez dakit orain benetako geldialdi baten dagoen, estatistikak baten alde edo aurka egiten dutelako irakurketaren arabera. Ikusi behar da ze enplegu sortzen den, eta sortze garbi hori ikusi behar dugu. Estatuari asko falta zaio, Euskal Herriari baino askoz gehiago.



# Goiena Klubeko azaroko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



## 32 hazbeteko telebista

### 32 hazbeteko OKI Telebista

Parte hartzeko sariaren izena:  
Telebista



### Otarak DEBAGOIENEN BASERRI SAREAr esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Baserrisarea



**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak

### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko,  
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikruz



www.harremandenda.org



### Otarak

HARREMAN DENDAr esker bidezko  
merkataritzako produktuez osaturiko  
2 otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Harreman



**Argia**

### Jokoak

Badakit 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:  
Badakit

### PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

WhatsApp: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.  
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotara sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# HERRIAK

BERGARA

## Etxea gainean eroaten duten turistek herria erakusteko asteburua

- ▶ Aurtengoa bigarren topaketa izango da eta antolatzaileek arrakasta errepikatu nahi dute
- ▶ Aurreko urtetik hona Udalak egokitzapen lanak egin ditu autokarabanentzako gunean

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Behin oporrak non igarako ditugun adostu ostean, mailek sortzen dituzte buruhauste gehienak. Pisua, tamaina, toki falta... Baina, oporretara etxe osoa eroateko aukera izango bagenu? Dirudiena baino errazagoa da hau, autokarabanek dezente errazten baitute ia ezinezkoa dirudien hori. Orain arte, toki askotan baztertuak izan diren ibilgailuak izan arren, azken urteotan, fama handia lortu dute. "Jendea kexatu egiten da, baina aparkaleku arazoak ez dituzte 32 autokarabanak sortzen, arazoak edozein herritan aurki ditzakezun 5.000 autoek sortzen dituzte", dio David Zapirain turismo teknikariak.

Edozein autokarabana ematen dituen zerbitzuek gain, autokarabanek abantaila ugari dituzte, kontrara baina, kotxe batek baino behar gehiago dituzte: komuna hustu, ur zikinak... Herri nahiz kanpoko erabiltzaileei zerbitzu hori errazteko, Bergarako Udalak, Labegarietako auzoan horretarako toki bat atondu zuen eta gunea hobeto ezagutarazteko hurrengo astebukaeran topaketa egingo du.

### Bigarren topaketa

Aurreko urtean lehen topaketa egin zuten eta honek izandako



Aurreko urteko topaketak arrakasta handia izan zuen. | GOIENA

erantzun positiboaren ostean, bigarren bat egitea erabaki zuten. Topaketa honen helburua Euskal Herriko nahiz kanpoko turistak erakartzea da. Zapirainek onartu moduan, "seinale kontuekin lan handia dugu, herrian laster jarriko ditugu, baina herritik kanpo konplexuagoa da", horre-

gatik erabiltzaileak koordinada bidez (N 43.104823 W 2.422652) edo (N 43° 6' 17" / W 2° 25' 22") iristen dira Bergarako gunera.

Azaroak 29tik abenduak 1erako topaketa ez da Labegarietara mugatuko eta gerturatzen diren Bergarak eskaintzen duen turismo baliabideak ezagutuko dituz-

te. "Herria eta inguruak erakusteko egitaraua antolatu dugu", dio Zapirainek.

Egitarauaz gain, oraindik azken ukituak ematen ari diren Bergarapass bono turistikoa aurkezteko balioko du gurpildun etxeek protagonismoa izango duten astebukaera honek.

### Etengabe gunea hobetzen

Autokarabanentzako gunea eraiki zenetik hainbat izan dira bertan egindako hobekuntzak. Erabiltzaileek euren autokarabanak hobeto garbitu eta hustu ahal izateko gainera, zorian gune bat bereizteaz gain, bertako iturria ere moldatu egin dute. Egokitzapen hauek ez dira azkenak izango eta Bergarako Udaletik azaldu moduan, laster gunearen sarreran bertan zer dagoen eta zertarako erabili daitekeen azaltzen duen panelaz gain, seinale berriak egongo dira.



Iturria egokitu egin dute. | IMANOL GALLEGO

### ASTEBURUKO EGITARAUA

**Azaroak 29, egubakoitza**  
Arratsaldean zehar Bergarako autokarabanentzako gunean aparkatuko dituzte autokarabanak.

**Azaroak 30, zapatua**  
11:30etan eliza eta espetxe zaharrera bisita. Arratsaldean aldiz, Jardunaldi Gastronomikoak.

**Abenduak 1, domeka**  
10:00etan, Bergarako gerriko berdetik San Martzial baselizaraino mendi txangoa.

DAVID ZAPIRAIN  
TURISMO TEKNIKARIA

"Oso ondo kokatuta gaude: AP-1 eta hondartzatik gertu..."

**Jende askok erabiltzen du Labegarietako autokarabanentzako gunea?**

Ez dugu neurketa jakin bat egin blog espezializatueta zabalkundea egin eta gero. Pozik gaude Bergarako guneak izandako online bisita kopuruarekin.

**Zer eskaintzen die Bergarak horrelako turistek?**

Ohiko turismo puntuez gain, Bergara oso toki egokian dago. AP-1a ondoan dugu eta bai hondartza bidean bai Europara bidean doan edozein turistarentzako atseden hartzeko toki ezin hobea da hau.

**Geratzeko toki bat baino, gunea ez da autokarabanentzako parking bihurtuko?**

Oso arautua dago hori. Erabiltzaileek gehienez 75 ordu egoteko baimena dute eta hori errespetatu egiten dute. Dena den, autokarabana bat autoa uzten duzun edozein tokitan lagatzeko aukera dago.

**Aurreko urtean 40 autokarabana batu ziren, aurreko arrakasta errepikatzea espero duzue?**

Gustatuko litzaziguke eta horretan gabilta. Zabalkundea egiteko orduan Sorbeltz elkar-tearen laguntza izan dugu, dena den, azken hamabost egun hauetan Espainia eta Frantzia kanpaina indartzeko asmoa dugu.

**Sasoi ona al da hau?**

Ez dugu espresuki aukeratu data hau, egia da uda garaian autokarabana gehiago ikusten direla, baina oso turismo erregularra da. Gehienek ez dituzte turismo garai propioak aprobetxatzen.



Musika Eskolako Gazte Banda kaleak animatzen. | I.E.



Jende ugari arratsaldeko bingoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Merkatariek dendetatik kanpo atera zituzten euren produktuak. | IURE EIZAGIRRE

## BERGARA

# Bergara Biziko deskontu eta ekintzek dendetara eramán dituzte herritarrak

Erdigunean jendea ibili zen, saltokietako erakusleihoak begiratu eta galdetzen; baita tabernetan ere

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Herrian dagoen merkataritza eta ostalaritza eskaintza ezagutarazi eta balioa emateko asmotan, Bergara Bizi eguna ospatu zuten

zapatuan. 53 merkatarik produktuak denda aurrera atera eta deskontuak jarri zituzten, eta tabernariak euro batean saldu zituzten pintxoak eguerdian.

Horrek bezeroak erakarri zituela aitortu zuten tabernariak.

12:30etik aurrera Musika Eskolako Gazte Banda ibili zen herriko kaleak alaitzen eta jendea

kontsumitzera animatu zuten. Dendetako produktuen eta lekua-aren arabera, Bergara Bizi egunak eragin handiagoa izan zuen, eta egunotako hotzak adibidez, arro-

pa-dendetako salmentak handitzea ahalbidetu du.

## Zozketak

Elektrotzarangaren ostean, 20:30etik aurrera pintxoak banatu zituzten tabernariak Xabier Muni-be plazan. Eta azken astean Bergara Bizi kanpainan parte hartzen ari diren saltokietan erosketak egin dituztenek bingoan parte hartzeko aukera izan zuten. Batek baino gehiagok irabazi zituzten herriko dendetan erosketak egiteko txartelak. DJ Eloy eta Josuk musika jarri zuten gero.

**BEGO ZUBIZARRETA**  
BERGARA



"Horrelako egunak erakargarriak dira erostera etortzeko: gauzak erakuslehotik kanpo, merkeago... ikusten dira. Beharrezkoak dira egun hauek kaleak animatzeko".

**ARITZ UNZUETA**  
BERGARA



"Tabernan nabari da jende gehiago dabilela, goizean goizetik hasi da jende gehiago. Pintxoak euro batera jarri ditugu eta espero dugu jendea".

**MARIJOSE INZA**  
BERGARA



"Beste zapatu batzuetan baino jende gehiago etorri da dendara galdetzera. %20ko deskontua dugu eta erosi ere besteetan baino gehiago egin dute".

**KARMELO MARTINEZ NIEVES KALBOTXOAGA**  
BERGARA



"Kalera irten eta deskontuekin topatu gara. Begiratu bat bota eta gero ikusiko dugu zerbait erosi edo ez, prezioaren arabera erosiko dugu. Ondo iruditzen zaigu horrelako zerbait egitea, ea herriko komertzioa pixka bat mugitzen den, hemen dena behea jota dago-eta. Jendea kanpora joaten da egun".

## BERGARA

## Gaztaina erre goxoak jan zituzten San Martinen

San Martin Agirre eskolako umeek gaztaina erre jana egin zuten egubakoitzean. Danbolina jarri zuten eskolan eta, haren aurrean abestu ondoren, ikasgeletan jan zituzten gaztainak eguraldiagatik. Jasangarritasuna bultzatzeko, paperean beharrean, ontzietan eramán zituzten gaztainak gelara. Gurasoek ere jan zituzten.



IMANOL SORIANO



BERGARA

NEREA AGIRREZABAL

## Kepa Aceroren ikus-entzunezkoa

Kepa Acero surfari eta abenturazaleak hitzaldia eman zuen egubakoitzean Osintxuko ludotekan. Jendek bete zen ludoteka algortarrak Alaskan eta Patagonian egindako bidaiaren nondik norakoak ezagutzeko; ikus-entzunezkoa ere eman zuten horretarako. Bere bizitzeko modua ere azaldu zuen Acerok, baita hurrengo bidaiak Hegoafrikara egingo duela iragarri ere.



Erabilitako materialarekin egindako apaingarrien postua, zapatuan, Eskoriatzako bigarren eskuko azokan. | LZ

**ESKORIATZA**

## Mauka politak, zapatuan, Eskoriatzako azokan

Hamabost saltzailek ipini zuten postua Udalak pilotalekuan egindako bigarren eskuko azokan

LARRAITZ ZEBERIO | ESKORIATZA

Urtean bitan egiten dute bigarren eskuko azoka Eskoriatzan, eta zapatu goizean hamabost postu zeuden frontoian. Badira urte batzuk azoka hori egiten hasi zirela, eta apurka apurka gero

eta jende gehiagok egiten ditu salerosketak bertan. Jantziak, jostailuak, berrerabilitako gaiekin egindako bitxiak, eskiak, mendirako makilak... askotariko produktuak egon ziren salgai, eta salmentekin gustura agertu

ziren saltzaile gehienak. Eguraldi kontuak tarteko, Udalak plazatik Udal pilotalekura pasa zuen azoka, eta jende gutxiago eta salmenta txikiagoak egon zirela ere aitortu zuten.

**Rockalean taldea zuzenean**

Azoka eguna erakargarriagoa egiteko, Rockalean taldea gonbidatu zuen Eskoriatzako Udalak, eta kalez kale ibili zen taldea. Bertsio ezagunak egiten ditu boskoteak, eta hotzari aurre eginez dantzan ere ipini zuten eskoriatzar bat baino gehiago.

**ARRASATE**

## Elkartrukea bultzatzeaz gain kostumizazio nozioak ere eman zituzten zapatuan Arrasaten


L.Z. | ARRASATE

Gero eta jende gehiago gerturaten da hilean behin Arrasateko Azoka plazan egiten duten berrerabilpenaren elkartruke azokara. Ohiko elkartruke azoka egiteaz gain, zapatu goizean arroparen berrerabilpena hartu zuten oinarri, eta gerturatu zirenek josteko makina eta guzti aurkitu zuten erabilgarri. Azokan arropak, poltsak, libu-

ruak, diskoak, jostailuak... trukatzeko aukera egon zen, baina baita arropa zaharrari erabilpen berria emateko tailerra ere. Praka edo elastiko zaharrekin poltsak, nezeserrak edo zorrotxiak egin daitezkeela erakutsi zuten azokako arduradunek. Bat baino gehiago animatu zen josteko makinaren aurrean eseri, eta lehenengo puntadak ematera.



Elkartruke azokan, josteko makinarekin konponketak egiten. | LZ



**EKONOMIKOA** (sinplea eta bero-emailea) • **BEHEKO SUA** (sinplea eta bero-emailea) • **ESTUFAK** • **GALDAREN ORDEZKATZEAK**  
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!

Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu **EGUN BATEAN!** Informa zaitetz!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea  
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92  
ARETXABALETA





Txistulari taldea, Elgetako Turismo batzordeburu Patxi Basaurirekin. | IMANOL SORIANO

## ELGETA

# Txistuaren doinuz lagunduta, mokadu goxoenak aukeratzen

Mugarik Gabeko Txuntxuneroak taldeak jarri zuen musika; eta tabernariak, pintxoak

GOIATZ ARANA | ELGETA

Belarriak gozatuta izango dituzte elgetarrek, atzo Mugarik Gabeko Txuntxuneroak taldeak herrian egindako saioaren ondotik. 30 bat txistulari etorri ziren, nafarrak gehienak, eta hamaika doinu jo zuten, goizean hasi eta eguerdira bitartean: Intxortako Atea izan zuten abiapuntu, gudarien ome-nezko doinuekin; eta Espaloia helmuga, 36ko Gerrari eskainitako erakusketaren bueltan. Tartean, herriko kale eta tabernetan barrena ibili ziren, tradizioari eutsiz eta elgetarrei konpainia eginez.

Euren doinuak entzuten bai, eta aho sabaia gozaten ere bai;

bietan aritu ziren atzo Elgetan batutako herritar eta bisitariak. Izan ere, egunerokoan baino mokadu goxoagoak egiteko aukera izan zuten, tabernariak lehia-ketara aurkeztutako pintxoak eman baitzituzten, euro baten truke. Gustukoenari botoa emateko aukera izan zuten, gainera, eta hala egindakoen artean sariak zozketatuko dituzte, baita pintxoek dituzten osagaiak asmatzen dituzten artean ere.

Ekimena martxan izango da datorren domekan ere eta amaieran egingo dituzte zozketak. Orduan, baina, Bergarako trikitilarien konpainian.



Pintxoak dastatu bitartean, musikarien konpainiaz gozatu zuten atzo herritarrek. | I.S.



Txistulariak, Espaloiko gerrako erakusketa ikusten. | I.S.




LEINTZ GATZAGA

JOSETXO ARANTZABAL

## Autodefentsa feminista tailerra

Udalak antolatuta eta Alaitz Mañesek gidatuta autodefentsa feminista tailerra egin zuten zapatu goizean Leintz Gatzagan. 11 emakume animatu ziren. Helburua izan zen eraso sexistak identifikatzeko espazio segurua sortzea, hala, emozioez eta bizipenez lasai hitz egiteko. Mañesek esan digu tailerrean, besteak beste, emakumeen autoestimua landu zutela.



ONATI

ONATIKO GAZTELEKUA

## Kanika txapelketa jokatu zuten

Kuboko V. Kanika Txapelketa egin zuten zapatu arratsaldean Oñatiko gaztelekuan. Guztira 11 gaztetxo animatu ziren eta giro bikaina izan zuten. Gazteek eurek jarri zituzten joko arauak eta zirkuitua ere eurek marraztu zuten, klarionez, gazteleku lurrean. Jostailuak ere jarri zituzten ibilbidean zehar, oztopo eta zubi gisa. Jaurtitzaila bakoitzak begirale bat zuen jaurtiketa kopuruak zenbatzeko. Gustura aritu ziren gazteak, eta azkenean, Jon Freire izan zen txapelduna.



Iaz, espero ez zen arrakasta izan zuen hitzaldi sortak. Irudian, Miguel de Madinabeitiaren gaineko saioa. | JOKIN BEREZIARTUA

# Bigarren hitzaldi zikloa herriko iragana astintzeko

Iazko "arrakasta deigarria" ikusita, aurten ere Arrasate Zientzia Elkarteak lau historialari gonbidatu ditu

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Iaz lehen aldiz antolatu zutenean, Arrasate Zientzia Elkarteak Juan Antonio Barrutiabengoak ez zuen espero *Arrasateko Iragana Astintzen* hitzaldi zikloak halako arrakasta izango zuenik: "Iazko arrakasta horren deigarria izan zen errepikatzeke lanean jarri ginea berehala". Bada, lan horren emaitza da bihar bertan hasiko

den bigarren hitzaldi zikloa, aurten ere Arrasateko historia ardatz duena. Maria Jose Iriarte izango da lehen gonbidatua: "Bere espezialitatea palinologia da, polena ikertzen du. Polenak nolako flora dagoen zehazten du eta beraz, historiaurretik hasita gure paisaiak eta klimak izan zuten bilakaera kontatuko digu. Arrasate eta inguruetakoa flora,

eta ondorioz fauna nola aldatu zen azalduko digu".

**1448ko erreketak, detaileekin**

Jose Angel Achon izango da bigarren hizlaria: "Arrasate eta Oñatiko kondearen arteko liskarrak ederto kontrolatzen ditu. Arrasateren erreketaz asko egin da berba baina Achonek xehetasun guztiekin egingo du berba; batai-

## LAU ADITUREN HITZALDIAK

**Maria Jose Iriarte,**

*Historiaurreko klimaren eta paisaiaren bilakera.*  
Azaroaren 19an.

**Jose Angel Achon,**

*Arrasateko herria eta Oñatiko konderria 1448an.*  
Azaroaren 26an.

**Alfredo Moraza,**

*Arrasateko teileriak.*  
Abenduaren 10ean.

**Maria Ines Olanar,**

*Ricardo Olanar Añibarro arkitektoaren gainean egingo du berba; haren aita.*  
Abenduaren 17an.

**SAIO GUZTIAK, GAZTELANIAZ**

Kulturateko areto nagusian (19:00).

laren azalpen zehatza egingo du". Bigarren saioaren ostean astebeteko atsedena hartuko dute eta abenduaren 10ean Alfredo Morazak egingo du berba: "Markuleteko *Teilerixe* baserriko eta Zigarrolako Aranguren teileriak izango ditu hizpide bereziki. Teilerietan nola egiten zen lan, zer ekoizten zuten, materiala nondik ateratzen zuten, garraioa... hainbat xehetasun emango ditu".

Maria Ines Olanar izango da zikloa ixtearen arduraduna: "Arrasaten jaiotako Ricardo Olanar Añibarro arkitekto ezagunaren alaba da. Curriculum handiko emakumea da eta aitaren gainean egingo digu berba, industria-arkitekturan izen garrantzitsua izan zen-eta. Biteri plaza egokitu zenean bota zuten Garibaian omenezko monolitoa eraiki zuen, besteak beste".

## NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA



Indartuz, indartsu egin

Askotan entzun ohi dugu hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, dakienak egiten ez duelako baizik, eta nik ere horrela dela uste dut. Ingu-rura begiratzen badugu, gehien entzuten den hizkuntza euskara izan beharko litzateke, baina hala gertatzen al da egungo gure gizarte honetan?

Alde batetik, ohitura bihurtu da lagun artean, taberna giroan, kalean, elkar-rikizketan, erosketetan, zerbitzuetan, teknologia berrietan... gure hizkuntza alde batera uztea eta gaztelania erabiltzea. Bestalde, gaur egungo gazte zein haur askok ikastola edo eskola esparruko hizkuntza bezala hartzen dute gure hizkuntza eta ondorioz, esparru honetatik kanpo gaztelaniara jotzeko ohitura handia dute.

Gai honek buruhauste asko eragin dizkit eta buelta asko eman dizkiot askotan, garrantzitsua delako geurea dena geure egitea. Beste hizkuntza batzuek ez bezala, gure kasuan, guk indartu behar dugu euskara eta gu gara indartsu bihurtu behar dugunak, gure hizkuntza baita guri nortasuna eman eta bizirik mantentzen gaituena. Egunerokotasunerako tresna bihurtzea izan behar da helburu eta erabilgarritasun normalizatu bat duela erakustea. Beraz ekiten egin eta eginez ekin!

Erabilgarria, geUrea, indartSua, Kantatu, Ahoan, noRtasuna, Aldarrikatuz!

**"Nortasuna eman eta bizirik mantentzen gaitu euskarak"**

**Inprobisazioa oinarri duten dantza saioak, egubakoitzean hasita**

Saiolan eraikina ekimen berri baten lekuko izango da egubakoitzean. Dantza gustuko duen herritar talde batek *Contact Jam* izeneko saioak antolatu ditu. Musikaz lagundutako inprobisazio-saioak izango dira eta 21:00etatik 00:00etara elkartuko dira. Izena emateko bertan agertzearekin nahikoa izango da.

## Titia emateko gela publiko bat ireki du Udalak BAZen

Herritar baten eskaerari erantzunez jarri dute, eta dagoeneko "hainbat" emakumek erabili dute

J.B. | ARRASATE

Titia emateko gela bat egokitu du Udalak BAZeko bulegoetan, azaro erdialdetik erabilgarri dagoena. Hotz egiten duen egunetan faltan atzematen ei zuen herritar batek titia emateko leku publiko babestu bat, eta Udalak,

eskaerari erantzunez, BAZen jarri du edoskitze-gela hori. BAZen ordutegian dago zabalik; aste barruan, 08:30etik 19:00etara eta zapatutan, 09:00etatik 13:00etara. "Hainbat" emakumek erabili dute dagoeneko edoskitze-gela berria, Udalaren arabera.



IXONE SERRANO

## Musean onenak Londresen ere

Iñaki Muruamendiartz eta Andoni Solupe arrasatearrek Londresko Euskal Elkartearen jokaturako VIII. Mus Txapelketa irabazi zuten, azaroaren 9an. Londresen bizi diren Euskal Herriko hainbat txokotako euskaldunek hartu zuten parte, eta bikote arrasatearra izan zen onena. Arratsalde-pasa ederra egiteaz gain, txapela eta ardo botila bana eraman zuten etxera. Zorionak!

**Elikadura subiranoaren gaineko saioak datozen hiru domeketan gaztetxean, Ernai antolakundearen eskutik**

Arrasateko Ernaik "bizi eredu berriak" eraikitzea posible dela aldarrikatzeko zenbait gairen gaineko saioak antolatu ditu. Hau da, gaztetxea "elkarrekin ikusi, entzun, hausnartu, eztabaidatu, sortu eta eraikitzeke gune" bihurtu gura dute. Horretarako atzo bertan egin zuten lehen saioa, elikadura subiranoa ardatz hartuta. Datozen hiru domeketan ere elkartuko dira (17:30); besteak beste, nekazaritzaren aldeko apustuaz, konposta norberak egiteko argibideez eta Arrasaten ortuak antolatzeke aukerez egingo dute berba.

## PSE-EE ez dago ados defizitaren kopuruarekin

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Aldundiak, bere eskumenen baitan, 18 milioi gehiago kudeatuko ditu aurtengo aurrekontuetan enplegua eta ekonomia sustatzeko. Horietatik 6 udal inbertsionetara bideratuko dira, eta Arrasateko PSE-EEren ustez "fondoak ez da nahikoa, eta gainera, dirua ez da modu egokian banatuko".

Paco Gartzia zinegotzi sozialistak prentsa ohar bidez adierazi duenez, defizitaren "banaketa guztiz neurrigabea da, herri txikien alde eginez eta herri handiagoak, biztanleria eta karga handiagoekin, gutxietsiz", horrez gain, Bildu eta EAJren arteko akordio honek, "Arrasate zigortzen du" salatu du.

Oinarrizko Toki Araubidearen legeak azaltzen duenez, "herri handienek gizarte zerbitzuak eskaintzera behartuta daude, eta horrek gastu publikoa areagotu egiten du".

Bozeramaile sozialistak Elgetako kasua aipatzen du prentsa oharrean: "1.120 herritarrekin 41 euroko jasoko ditu biztanleko, Arrasaten aldiz 22.000 biztanle izan arren, ez gara 6 eurotara iritsiko". Gainera alderdi sozialistak egindako proposamena, "ez aztertu izana" salatu du. Proposamen horretan, gizarte zerbitzuak kudeatzeko 2 milioi euro estrako partida bat bideratzeko proposamena ageri zen.

Bere ustez, diru honen banaketa biztanleriaren arabera egin beharko litzateke, "herri bakoitzari gutxienezko lineal bat bermatuz". Gauzak honela, Arrasateko 127.918 euro jaso beharrean 220.129 euro jasoko litzuke. Paco Gartzia zinegotzi sozialistaren esanetan: "Bildu eta Eusko Alderdi Jeltzaleak berdintasun eta proportzionaltasun irizpideekin jokatzeko beste aukera bat galdu dute".



Sonic Angels taldea. | GOIENA

## Eguen honetan Sonic Angels taldearen kontzertua Kooltur-en

A.E. | ARRASATE

Talde frantziarraren musika izango da protagonista eguen honetan Kooltureko kontzertu sortan. 2005eko talde honek punk sikodelikoa jotzen du, gehien bat 60,70 eta 80ko hamarkadetako musika gogora ekartzen du. Hiru pertsonen osatutako taldea da eta bere azken diskoa aurketuko dute Arrasaten, *On the island of ghost love* lan berria.

**Datorren astean gehiago**

Azaroaren 28an, Tokyo Sex Destruction taldea arituko da oholta gainean. Bira ugari egin dituen Kataluniako taldea da, Jon Spencer Blues Explosion-en senitartekoak. Punk-garage musika mota jotzen dute. Jada bost album grabatu dituzte. Azkenengoa aurten grabatutako *Sagittarius*.

Sarrera, 5 eurokoa izango da eta kontzertua 22:00tan.

## Kaloriak erretzeko eta gorputza tonifikatzeko ikastaroak martxan darrai: Spinning pump

Kaloriak erre eta giharrak tonifikatzeko nahia edo beharra duten guztiek ikastaro bikain baten parte hartzeko aukera izango dute: Spinning pump ikastaroan. Irailean jarri zuten martxan Zumba ikastaroarekin batera eta oraindik ere plaza batzuk libre daude. Martitzen eta eguenero, 15:15etatik aurrera izaten dira klaseak eta interesa duten guztiei zuzenduta dago. Interesa dutenek 30,95 euro ordaindu beharko dute ikastaroaz disfrutatzen. Abonatuak ez direnek aldiz, 10 euro gehiago ordaindu beharko dute.

Ainhoa Otaola Agirre | Etorkintzako kidea

## "Ezezagutza da gurasoei beldurra eragiten diena"

- ▶ Nerabe eta sare sozialen inguruan hitzaldia eskaini zuen Otaolak
- ▶ Teknologia berriekin batera hazten ari dira gazteak, gurasoen beldurrerako

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Ainhoa Otaola bermeotarra Psikologiaren eta kazetaritzaren lizentziatua da. Etorkintza Elkargoko Adikzioen Prebentzioerako Teknikaria da. Sare sozialak eta nerabeak hizpide harturik hitzaldia eskaini zuen Kultur Aten.

**Zer moduz joan zen hitzaldia?**

Nik uste oso ondo joan zela. Jende nahikotxo hurbildu zen ta azpimarratzekoa baita gizonak ere animatu zirela. Gauza hauek, seme-alaben heziketa kontuetan eta, oraindik emakumeak (amak) izaten dira gehien inplikatu direnak baina gutxika-gutxika gizonak ere esparru hori bereganatzen hasi dira.

**Gurasoak kezkatuta daude?**

Bai, normalean seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaiez asko kezkatzen dira, baina batez ere nerabearen ingurukoekin eta beraientzat ezezagunagoak edo arrotzagoak izan daitezkeen gai ororekin; drogen kontsumoak, lehenengo sexu harremanak edo teknologia berrien eta sare sozialen inguruko arriskuak bezalako gaiak asko kezkatzen ditu gurasoak. Sare sozialen kasuan, sarritan, guraso batzuk tresna hauei buruz izan ditzaketen ezezagutzak kezka hauek areagotu egiten ditu.

**Zein da gurasoen jarrera teknologia berrien aurrean?**

Denetarikoa aurki dezakegu, batzuk teknologia gehiago edo gutxiago erabiltzen eta menperatzen dituzte, beste batzuk aldiz, beldurtu egiten dira, mundu hori arrotza eta zaila iruditzen zaie eta beldurtu egiten dira. Ezezagutza da azkenean beldurra eragiten duena. Argi dagoena zera da, gaztetxoaren bizitzan presente daudela, beraien belaunaldian teknologia berriei inguratuta hazten direla eta beraien eguneroko bizitzan oso paper garrantzitsua dutela, beraz, gurasoek seme-alabekin gai hauek hitz egin nahi izan ezker, edo beraien seme-alabak aholkatu eta babestu nahi izan ezker, zertaz hitz egiten ari diren jakitea funtsezkoa da, sexualitate kontuez edo droga kontuez hitz egiten dugunean bezala. Beraz, informatu eta formatu beharra dago, ez da informatik aditua izan beharrik baina oinarrizko lau gauzatxo menperatzea oso gomendagarria da eta agian horretarako ikastaroren batean parte hartzea ere ideia bikaina izango litzateke.

**Sare sozialak eta adingabeak, horrenbeste arrisku daude?**

Arriskuak egon badaude, kalera irteten garenean ere arriskuak egon dauden moduan. Arrisku horiei aurre hartzea eta arrisku horien aurrean gure burua babestean jakitea da gakoa. Ez gara



Ainhoa Otaola Etorkintza Elkargoko kidea da. | A.O.

**"Gutxika gutxika gizonak ere heziketan inplikatu ari dira"**

**"Teknologia berrien mundua oso arrotza da gaur egun guraso askorentzat"**

**"Geroz eta gazteago hasten dira sare sozialetako tresnak erabiltzen"**

beldurtu behar, ez dago tremendista izan beharrik. Sarritan komunikabideen bitartez ere helarazten zaizkigun berriak oso sentsazionalistak eta dramatikoak izaten dira, alde negatibo eta jasoera tamalgarriak erakusten digutenak, eta horrek ez du laguntzen; beldurra zabaltzea baino ez dute lortzen, gizarte alarma sortzea eta teknologia berrien kontrako jarrerak sustatzea, mesfidantza eragitea.

Pribatutasuna eta Segurtasuna bezalako kontzeptuak aldatu egin dira sare sozialak agertu direnetik eta arrazoi honegatik gurasoek seme-alabei lagundu behar diete tresna hauek erabil-

tzeko orduan, arriskuak murrizteko.

**Adingabeak kontziente dira arriskuak?**

Nik uste gero eta kontzientegoak direla. Beraiekin hitz egiterakoan, gero eta gehiago dira beraiek edo beraien inguruko ezagunen batek inoiz nolabaiteko arazoren bat izan dutela onartzen dutenak.

Hala ere, asko oraindik ez dira kontziente gure arlo pribatuari dagozkion aspektuak publiko egiteak izan ditzakeen arriskuak. Gero eta gazteago hasten direlako tresna hauek erabiltzen izan daiteke (nahiz eta sarritan, sare sozialetan legezko gutxieneko adina ere eduki ez), edo arriskuak ezagutu arren, nerabearen ezaugarri propioetako bat delako ahalguztidun sentitzea, hau da, beraiei halakorik ez zaiele gertatuko pentsatzea, horrelako beste batzuei bakarrik gertatzen zaie eta beraiek dena kontrolatzeko gai direla.

**Ziberbullying-a zorritzarekin modan dagoen hitza da, baina zer da?**

Parekoen artean ematen den jazarpen edo eraso mota bat da. Teknologia berrien esparruan ematen da. Lagunei buruzko informazio iraingarria argitaratzea, teknologia berriak erabiliz: mehatxuzko mezu elektronikoak, argazki edo bideo pertsonalak argitaratzea, txantxa zakarrak egitea, xantaiak, irainak... Mota honetako jazarpena mugikorren, sare sozialen, berehalako mezuen bitartez eman daiteke eta argitaratzen den informazioa ezabatzeko oso zaila izaten da.





Mireia Gabilondo, lagun batekin berba egiten, solasaldia hasi aurretik. | ANDER LARRAÑAGA

# Lagunen aurrean azaldu du bere azken lana Mireia Gabilondok

'Amaren eskuak' filmari buruzko solasaldia egin zuten eguenean Aroztegin

JOHANA ELORTZA | BERGARA

Etxean eta lagunekin aurkeztu zuen joan den astean Mireia Gabilondo zine zuzendariak bere azken lana, *Amaren eskuak* izeneko filma. Bergarako Aroztegi aretoan egin zuen eguen iluntzean, herritar eta lagun aurrean.

Karmele Jaio idazlearen eleberrian oinarrituta lan hau "sentimenduz betetako filma" dela aitortu zuen Gabilondok egueneko solasaldian. "Detonatzaila Alzheimerraren gaia dela esanenezake, baina, atzetik duen testuingurua garrantzitsua da"

,azpimarratu zuen zuzendari bergararrak. "Liburua irakurri nuen zer sentitu nuen, filma egiteko zer gogo izan nuen, zein aktoreekin egitea nahi nuen eta liburutik pantaila handira istorioa nola ekarri nuen. Horretaz berba egin dugu", zehaztu du.

## Harrera ona

Hain zuzen ere, azpiko trama horren eta filma egiterako orduan izandako gora-beheren inguruan eta filmeko istorioaz berba egiteko bildu ziren Aroztegin. Zuzendariarendako ezagunez betetako solasaldia izan zen, jaioterriko herritarrek gerturatu baitziren filmaren inguruan galdetzeko eta bide batez, zorionak emateko. Gabilondok, berriz, inoiz baino urduriago zegoela aitortu zuen: "Neure jendea da. Hemen ikasi dut bizitzen, harremanak sortzen eta beste hainbat gauza. Herriko txoko eta plazak ere ikusi ditut hona etorri aurretik eta urduri nago, bai".

*Amaren eskuak* filmak orain arte oso harrera ona izan duela adierazi zuen Mireia Gabilondok Aroztegin: "Liburuak hiru zutabe dituela esango nuke: ama bat galtzen duzunean zenbat gauza gelditu diren esan edo entzun gabe, bizitza goitik behera aldatzen zaizunean nola egin aurrera eta amak bizi izandako istorioak nola iristen diren gaur egun protagonistaren bizitzara. Gauza gogorrez berba egin arren, bizitza bizitzera animatzen duen istorioa da. Uste dut jende asko identifikatuta sentitu dela filma horretan kontatzen den egoerarekin, sentimenduekin, eta horregatik gustatu zaiela. Egia da, baita, telebistan ikusteko zain daudela batzuk, baina jende asko etorri da zinema aretoetara ere, bai. Gustatu zaiela entzun dut, eta hori da polita niretako".

## NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO



## Idea berria, kalean bizia?

**A**ulkia. Globoa. Zuria. Urdina. Hemen. Han. Zer ote? Galderak. Harridura. Eta azkenean... Sorpresa!

*Bergara bizi*-koek lortu dute herritarren arreta deitzea. Publizitate kanpaina berriari ekin diote, era ausart eta original batean.

Aldatzeko garaian bizi gara, inprobisatzeko garaian. Publizitate arruntetik at, gauza berriak sortu beharreko unea da. Hori da azken batean publizitatearen eginbeharra, alegia, jendearen arreta erakartzea. Lotan dauden herritarrek esnatzea. Zerbait lortzeko, ezinbestekoa da jendearen interesa piztea.

Globo urdin bat, aulki zuri bati lotua; han eta hemen. Herriko hainbat lekutan ikusgai izan dugu azken egunotan. Lehenengo pausoa lortu dute: herritarren jakin nahia piztea. Agerian oso sinplea dirudienak atzean mezu pisutsua dakar. Helburua Bergarako merkataritza bultzatzea da. Kaleak berpiztea; jendearekin, biziarekin, dendeekin, edota tabernekin. Bergara margolariak duen paleta koloretsuarekin margotzea da.

Merkatari txikiak izan arren herriarentzat beharrezkoak dira. Batzuek bizitza guztia daramate gure artean, beste batzuk, ordea, hasi berriak dira. Baina, guztien artean, eta kanpaina bikain honekin, dagoeneko, saltzaileek haziak bota dituzte. Guri orain, herritar bezala, hazi horiek ureztatzeko txanda heldu zaigu...

**"Bergara bizi"-koek lortu dute herritarren arreta"**

# Egoitzaren astea egingo dute gaurtik, Mizpirualden

Urtero egin ohi duten bazkaria zapatuan izango da, Alai taldearen dantzaldi eta guzti

O.E. | BERGARA

Egoitzaren Astea ospatuko dute gaurtik, astelehena, zapatuta bitartean Bergarako Mizpirualde egoitzan. Denetarikoko ekintzak antolatu dituzte aste guztirako: zuzeneko musika ekitaldiak, dokumentala, antzerkia eta urtero egin ohi duten bazkaria, besteak beste.

## Musika

Gaur, astelehena, arratsaldean esaterako, *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* izeneko dokumentala emango dute eta segidan, musika eskolako soka eta saxo taldeen emanaldia ere izango dute.

Bihar Virginia Imaz etorriko da eta barre egitearen garrantziaz mintzatzeko zaie egoiliarrei, elkarrekin barre eginez. Izan ere, barreterapia saioa eskeini die Imazek. Musika eskolako abesbatza eta txistu taldearen emanaldia ere izango dira arratsaldean.

Musikaz gehiago gozatzeko, musikaterapia eta musika eskolako trikitilarien eta gitarra taldeen emanaldiak ere izango dituzte.

## Oñatitik eta Zumarragatik

Bestalde, beste herri batzuetako egoitzetako boluntarioen bisita ere izango dute. Eguenean, esaterako, Oñatiko Nagusilaneke boluntarioek antzerkia egingo dute eta egubakoitzean, dantza egitera eta abestera etorriko dira Zumarragatik. Bergarako Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia ere izango dute arratsalde horretan.

## Bazkaria

Urtero egin ohi duten moduan, aurten ere egingo dute bazkaria. Zapatuan, hilak 23, izango da hori. Bazkariaren aurretik meza izango dute eta ondoren, dantzaldia Alai taldearen eskutik. Bazkaltzera joandako denak dantzan jarriko ditu Alaik.

# Idoia Bediaga 'La Voz'-eko finalerako sailkatu da

O.E. | BERGARA

*La Voz* talentu-saioko finalera heldu da ama Bergarakoa duen Idoia Bediaga Elortza abadiñoarra. Zuzenean sailkatu da, gainera. *Coach* bakoitzeko bi kide zuzenean pasa dira eta finaleko gainerako lehiakideek probak pasa beharko dituzte. Idoia izan da zuzeneko txartela lortu duenetako bat. Rosariok eta Orozcok, biek nahi zuten Idoia bere taldean, eta berak Rosario aukeratu zuen *coach* edo entrenatzaile gisa.

Hilaren 27an zuzeneko lehen gala izango da.



Idoia Bediaga. | GOIENA

# Abenduan izango da hurrengo Kafekonpon hitzordua

O.E. | BERGARA

Izorratu diren etxetresna elektrikoak edo beste aparatu edo elementuak konpontzeko aukera eskaintzen du Kafekonpon egitasmoak. Apurto diren gailuak eraman, konpontzen dakitenek berriro martxan jar ditzaten. Eta hori guztia, kafea hartuz eta tertulian.

Uda ostein jarri zuten martxan eta gero eta gehiago ari da zabalitzen herrian. Hilean behin jartzen dute hitzordua, San Joxepe egoitzan. Azaroan ere horrelaxe egin dute eta kafea eta konpainia lagun, ilea lehertzekoak konpontzen aritu dira, adibidez, horretan trebeak direnak. Hurrengo hitzordua abenduan izango da.



Azaroko Kafekonpon. | BERGARKO UDALA



Zapatuko merkatuaren ostean hondakinak kamioira igotzen FCC enpresako langilea. | I.G.

## Kale garbiketa zerbitzua hobetzeko hitzarmena

Udalak eta FCC enpresak sinatu dute; esaterako, maiztasuna handituko da

IRATI GOITIA | OÑATI

Kale garbiketa zerbitzua hobetzeko eta egungo beharretara egokitzeko, Udalak bilerak egin ditu FCC Medio Ambiente enpresarekin eta hitzarmena ere sinatu dute bi aldeek. "Zeuden gabeziak betetzen saiatu gara. Batez ere, auzoetan eta asteburuetan zeuden hutsuneei erantzuten ahalegindu gara", adierazi digute Udaleko Zerbitzu Sailetik.

### Maiztasuna handitu

Horrenbestez, hainbat hobekuntza hitzartu dituzte Udalak eta enpresak. Arduradun bat jartzea erabaki dute %20ko lanaldiarekin, esaterako. Garbiketa maiztasuna handitzea ere adostu dute: erdigunea egunero garbituko da, auzoak astean hiru bider eta industrialdeak hilean behin.

Auzoetan eta industrialdetan kale-garbiketarako makinak erabiliko dituzte. Bestalde, hamar lanaldi fatzadak garbituko dituzte ur eta hondardun makinarekin. Araotz eta Arantzazu auzoetako zakarrontziak hustea da bi aldeek hartu duten beste erabakietako bat.

### Asteburuetako zerbitzua

Asteburuetako zerbitzua ere zehaztu dute. Hala, merkatu egunetan, mahaiak prestatuko dituzte goizean FCCko langileek. Eta behin merkatua bukatu ostean, hondakinak jaso eta inguruak txukunduko dituzte. Igande eta jaiegunetan kale-garbiketarako makinaz, ur-makinarekin eta eskuz garbituko dituzte kaleak. Horretarako, 3,5 langile arituko dira lanordu osora.

### Makineria berria

Materiala zaharkituta gelditu dela-eta, berria erosiko du FCC enpresak: kale-garbiketarako aparatu mekaniko bat, lur-orotariko *pick-up* bat elurra kentzeko hortzekin eta gatza zabaltzeko, bi *porter*, sei haizagailu eta lau karro. "Material berri honek ahalbidetuko du maiztasuna handitzea, ingurune zabalagora iristea, eta ondorioz, kalitatea optimizatzea", diote FCC enpresatik.

### Bi urterako kontratua

FCC enpresak eskainitako zerbitzuak 473.347 euroko aurrekontua izango du urtean (BEZ kanpo). Horrek %13,32 igoera suposatzen du. Bi urterako sinatu dute kontratua, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin Udala pozik balego eskainitako zerbitzuaz.

## Base-jauziak, Patagonia, zinema eta Felix Baltistan, mendi hamabostaldian

Ikus-entzunezkoak eta 'Autana' pelikula emango dituzte bihartik egubakoitza bitartean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak esku artean duen mendi hamabostaldia bigarren astea beteko du bihartik. Aste honetan, eguaztenean izan ezik, egunero egongo da zer ikusi. Beti ere, mendia eta mendian egiteko diren kirolak izango dira protagonista nagusiak. Ekitaldi guztiak kultura etxeko zinema-aretoan izango dira: ikus-ent-

zunezkoak 19:30ean eta zine-klub emanaldia 20:00etan.

### Patagonian barrena

Carlos Suarez eskalatzaila izango da biharko protagonista. Naranjoko paretan, bakarka, bidea zabaldu zuen madrildarrak *Atraccion por el vacio* ikus-entzunezkoa erakutsiko du. Base-jauziak oinarri dituen emanaldia da.

Etzi, eguaztena, Egoitz Zubizarreta arrasatearrak Cerro Torren bizi izandakoa kontatuko du. Iazko abenduan Patagonian egon zen, eta besteak beste, Cerro Torre eta Poincenot orratzean igoerak egin zituen.

### Felix Baltistan fundazioa

Aste honetako zine-klubaren emanaldia mendi hamabostaldia-ri eskainiko diote. *Autana* delako pelikula emango dute. Amazonetako Cerro Autana paretatik ikusgarrian egindako lehenengo igoerari buruzko filma da.

Azkenik, egubakoitzean, Felix Baltistan fundazioaren lanaren gainean egingo dute berba. Fundazioko hainbat kidek Baltistaten egiten diharduten lanaren eta han bizi duten egoeraren gainean hitz egingo dute.

## San Martin egoitzan, nagusien astea ospatzen

Gaur, Oñatiko Musika Eskolaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da 18:00etatik aurrera

I.G. | OÑATI

Nagusien astea ospatzen dabilza San Martin egoitzan. Zapatuan egin zituzten lehen ekintzak: meza abesbatzak lagunduta eta bazkaria familiako kideekin.

Datozen egunetarako ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Horrenbestez, San Martin egoitzakoek izango dute bai, non gozatzeko aukera. Izan ere, orotariko ekimenak antolatu dituzte egubakoitza bitarte. Gaur Oñatiko Musika Eskolaren

kontzertua izango dute, 18:00etan. Bihar, martitzena, bolo txapelketa egingo dute 16:30ean hasita eta gaztaina-jatea ostean. Etzi, eguaztena, Oñatiko Abesbatzaren kontzertua 19:00etan eta ondoren afari-merienda. Eguenean, azaroak 21, Bingo berezia egingo dute 10:30ean eta arratsaldean Oñatz dantza taldearen emanaldia izango dute, 18:30ean. Nagusien asteari amaiera emateko egubakoitzean, hilak 22, proiektio berezia izango dute.

## Jostailu erakusketa egingo dute seigarrenez azaroaren 23an eta 24an, Txaloka Udal Ludotekan

Bi urtetik zortzi urtera bitarteko umeei eta euren gurasoei zuzendutako jostailu erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan azaroaren 23an eta 24an. Goizean, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Erakusketa ez da izango erakusleihu huts bat. Gurasoek informazioa jasotzeko, kezkek argitzeko eta gomendioak eskatzeko aukera izango da. Horretaz gain, jostailuak probatzeko aukera ere egongo da eta jolas kooperatiboaren gunea.

## Elkar Hezik guraso eta umeei zuzendutako jolas kooperatiboaren tailerra antolatu du biharko

Familiako harremanak eta lotura afektiboak hobetzeko asmoz, jolas kooperatiboaren tailerra antolatu du Elkar Hezik biharko, 18:30etatik 20:00etara, Arantzazu Ama kaleko eraikinean. 3 eta 12 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei dago zuzenduta. Mahai-jolas kooperatiboak zein kanpokoak landuko dituzte. Helburua da helduekin eta haurrekin batera lan egitea, besteak beste: elkarlanerako estrategiak eta jolaserako espazioak sortzeko.

## NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEIN



## Baziren behin... APPak

Mundua aldakorra da. Aldaketa batzuk ia ez ditugu nabaritzen, baina beste batzuek eredu zaharren haustura dakar. Zentzu honetan teknologia benetako iraultza izan da eta bizitzaren arlo guztietan nabaritu dugu, zer esanik ez kultura kontsumitzeko eran.

Aurrekoan haur liburu eza-gun batean oinarritutako APP edo aplikazio bat erosi nuen. Liburuarekin duen desberdintasun nagusia euskarria da. Aplikazioa, tableta edota mugikor batera jaitsi behar dugu, baina sakonean diferentziak askoz esanguratsuagoak dira. Paperarekin konparatuz, aplikazioek hurrengan (eta hel-

duengan noski) elementu oso erakargarri batzuk batzen dituzte: soinua, elkarreragiletasuna (haurrak ipuinaren eragile bihurtzen dira), mugikortasuna (papera estatikoa da, eta hauek eguneratu daitezke), hizkuntzaren aukeraketa, ahots grabaketak... nahi beste aukera. Horri, betiko testua eta ilustrazioak ere gehitu behar dizkiogu, baina, ipuinak dira edo beste zerbaiten aurrean gaude?

Ziur aski mundu digitalean jaio eta hazi diren umeei, gailu hauekin emango dituzte beraien lehen urratsak irakurketan. Hala ere, irakurketa prozesua desberdina izan arren, ezinbestekoa izango da haurren garapen intelektuala bermatzeko eta etorkizuneko irakurle kritikoak hezteko.

**"Sakoneko diferentziak dira esanguratsuagoak"**

# Aurtengo Agenda 21 irudi bakar batek ilustratuko du

Biodibertsitate gaia landuko dute Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikasleek

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Ikasturtea hastearrekin batera Agenda 21 programari hasiera ematen diote Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikastetxeek. Ibarraundi Museotik kudeatzen da bi herrietan eta urtero-urtero programari irudia ipintzeko lehia-keta antolatzen dute. Aurtengo ikasturtean, baina, horrekin lotuta berritasunen bat ere egon dela eman dute aditzera.

## Irudi bateratua

Museoko Saioa Alzuak aldaketaren nondik norakoak azaldu ditu: "Orain arte Aretxabaletarako eta Eskoriatzarako irudi bana hautatu izan dugu, baina aurtun erabaki da bakar bat egotea. Izan ere Aretxabaletako ikasleak dabilta Eskoriatzan ikasten, eta baita alderantziz ere, eta biak guk kudeatzen ditugunez aproposa zela ikusi genuen".

Ikasleek marrazkiak egin zituzten eta guztien artean aukeratu dute dagoeneko bat. Ikasturte honetan baliatuko dituzten dokumentu eta bestelakoetan presente egongo den irudia izango dela eman du aditzera Alzuak.



Ikasleak Eskoriatzako osoko bilkuran. | Z.V.D.M.

Eta programa ilustratzeko marrazkiei esker, jorratuko den gaira sarrera egin diote aldi berean.

Biodibertsitatea izango da aurtun ere Eskoriatza eta Aretxabaletako ikastetxeetan neska-mutilek landuko duten gaia. Guztira 35 taldek hartuko dute parte, "hogeina ikasle bakoitzean, gutxi gorabehera".

## Aurrena, ikastetxeetan

Aurtengo Agenda 21aren baitan lehenengo urratsak eman dituzte, beraz. "Gainera, eskolen arteko foro bat egin dugu bi herrietako ikastetxeetako gela bakoitzeko ordezkariekin. Guztien artean hautatu zuten ikurra eta gainera, datozen hilabeteetan jorratuko duten gaia aurkeztu genien".

Orain ikastetxeetan biodibertsitate gaia lantzen hasiko dira. "Eta hurrengo urratsa izango da gurekin gaia lantzea. Otsaila eta apirila bitartean talde bakoitzak saio bat egingo du gurekin. Biodibertsitatearen gaineko herriko diagnosis egiteko irteerak egiten ditugu, esaterako."

Egindako behaketetatik ondorioak aterako dituzte gero ikasleek eta proposamen edo eskari batzuk garatuko dituzte horietatik abiatuta. "Herri bakoitzeko udal gobernuari aurkezten dizkiete kurtso amaieran osoko bilkura baten. Eta amaitzeko, gaiaren jarraipena ere egiten da".



Aukeraturako irudia. | IBARRAUNDI MUSEOA

## ESANAK

**"Biodibertsitate gaia landuko dute aurtun ere Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteek"**

SAIOA ALZUA | IBARRAUNDI MUSEOA

## NIRE USTEZ

OIER ARANZABAL



**Ez-erabilpena, onena**

Euskaraz hitz batzuk idazteko aukera aurrez eskertuz, pasa den astean gertatutakoa kontatuko dizuet. Supermerkatuko ilaran geunden Oihan, 5 urteko semetxea, eta biok. Sutan zegoen kutxazaina, aurreko bezeroak, 70 bat urteko andreak, behar ez zituen plastiko eta kartoi piloa bertan utzi zizkiola eta. Hori bai lana guzti hura

jasotzen... "Nire ustez andreak behar zuena hartu du, marketinero apaingarrri piloa bertan utziz". "Zer nahi du txoro horrek, duela berrogeita hamar urte bezala bizitzetza?", erantzun zigun.

Etxera joan eta erosketa-organik janaria apaletara eta hozkailura pasatu eta txukundu orduko, soberakin piloa geratu zitzaizkigun birziklatzeko: plastikoak, kartoizko kutxak, etiketak... "Zertarako

**"Birziklapena modan dago; baina ez da hobe ez-erabilpena?"**

demonstre erosi dugu guzti hau, aitaxo? Etxera iritsi bezain pronto botatzeko?"

Birziklapena modan dago; politiko guztiak, kolore bateko edo beste babestu, ados daude birziklatu beharraz. Hobe da berrerabilpena, esnearen kristalezko botilak berrerabiliz.

Ez al da oraindik hobe, baina, ez-erabilpena? Zertarako behar dut jogurten kartoia, ogi barraren zorroa, gailletetan plastikoaren gaineko plastiko eta ondoren datorren kartoia?

Nahiago dut aitzinako erara erosi, behar dudana eta kito. Noiz konturatuko dira horretaz saltoki handiak? Aspaldi batek zioen bezala, aurrera goaz ala atzera?

# Euskararekiko jarrera baikorrek sustatzeko 'Zergatik ez?' tailerra

0 eta 6 urteko haurrak dituzten gurasoei zuzenduta bi saio antolatu ditu Loramendik

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko saioa da *Zergatik ez?*. "Duela urtebete inguru hasi ginen Loramenditik tailerra ematen. Topagunearen ekimenez sortu zen; orain arte Kurtzebarrin eta Almenen eman ditugu, DBH4ko ikasleekin gaia landuz". Hala eman du aditzera Josu Retolazak. Oraingoan, Kuku Mikurekin eta Udalarekin batera antolatu dute. Bi saio egingo dituzte, gaztelaniaz -hilaren 26an- eta euskaraz -abenduaren 4an.

## Izen-ematea zabalik

Tailerrean 0 eta 6 urteko haurren gurasoek hartu dezakete parte. Besteak beste, hizkuntza aniztasuna, hizkuntzaren galtze prozesuak, erabiltzeko zailtasunen identifikazioa eta beste landuko dituzte.

Gaztelaniazkoan parte hartzeko izen-emate epea azaroaren 22an amaituko da; eta euskarako saioa parte hartzeko hilaren 26an. 650 939 693 zenbakira deitu edo [kukumikuelkartea@gmail.com](mailto:kukumikuelkartea@gmail.com) helbidera idatzi.



Gurasoei zuzendutako saioak antolatu dituzte | TOPAGUNEA

## Azkaiter Peloxek emanaldia eskainiko du eguen honetan, azaroak 21, Haizea tabernan (21:30)

Ostegun Akustikoak lehiaketa eguen honetan hasiko da eta bertan hartuko du parte Unai Azkarateren Azkaiter Pelox proiektuak. Bergararrak, blues eta rock apur doinuekin girotuko du ostegun iluntzea. Hurrengo asteetan, ostera, Josu Zubia, Jim TNT eta Saiatu Berriz taldeek izango dute euren musikaz publikoa konbentzitzeko ardura.

## Salgai daude Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen zapatuko ikuskizunerako sarrerak

Zapatuan, azaroak 23, eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Bizipoza* euren azken ikuskizuna Eskoriatzan, eta ipini dituzte sarrerak salgai. Manuel Muñoz kiroldegian izango da, 17:30ean hasita. Kiroldegian bertan erosi ahal izango dira sarrerak 6 euroren truke; asteleheneetik egubakoitzera bitartean 08:00etatik 21:00etara egongo da horretarako aukera.

## Emakumeen lidergorako estrategien baitan sare sozialak izango dituzte hizpide eguenean (18:00)

Murgibe taldea Emakumeen lidergorako estrategiak hitzaldi zikloa ematen ari da Eskoriatzan azaroan zehar. Eguen honetan, hilak 21, hirugarren saioa izango da eta bertan, *Emakumeen arteko sare sozialak aldaketarako beharrezko aliantza moduan* izeneko berbaldea eskainiko dute. Aurreko saioetan bezala, kultur etxean izango da, 18:00etatik aurrera.

## Ehiza postuen zozketekin amaitu du Aldaype elkarteak eta ordutegiak ekarri ditu gogora

Aldaype ehiza eta arrantza elkartetik aditzera eman dutenez Eskoriatzan egin diren zozketekin amaitu dute gaur, astelehena. Horrekin batera, ehizarako ordutegiak ekarri dituzte gogora. Hala, azaroaren 30era bitartean 07:30etik 17:30era ehizatu ahal izango da, eta abenduaren 1etik denboraldia amaitu bitartean, ostera, 08:00etatik 17:30era.



Herri Eskolako hiru guraso, barikuan, eskolako umeei gaztaina erreak banatzen. | L.Z.

**ELGETA**

## Hogei kilo gaztainarekin egin zuten barikuan eskolako gaztaina-erre jana

Eguraldi txarra tarteko Elgetako Herri Eskolako eskola-umeei, irakasleek eta gurasoek frontoi zaharrean egin dute aurten urteroko ospakizuna

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ikasturte hasieran inauguratutako frontoi zaharrean egin dute aurten eskolako gaztaina-erre jana Elgetan. Bariku arratsaldean elkartu ziren eskolako umeei, irakasleek eta gurasoak frontoiaren babespean gaztaina erreak jatera.

Maala guraso elkartearen eta ikastetxearen ekimenez hogei kilo gaztaina erre zituzten. 15:00etan elkartu ziren guztiak danbolinaren bueltan. Eskolako umeei paperezko kukurutxoak eskuan prest zituztela gerturatu ziren.

**Kantuan eta dantzan**

Adinka antolatuta kantuan egin zuten lehenengo umeei. *Errekin errekin* eta *Gaztainak erreko ditugu* kantuak abestu zituzten. Ondoren, lerroan ipini eta guraso elkarteko kideen eskutik gaztaina beroak jaso zituzten nork bere kukurutxoan. Gustura jan zituzten umeei, eta baita ekitaldira gerturatu ziren gurasoak eta senitartekoak.

Dantzan ere egin zuten zenbait umek. Giro hotza egin arren berotasuna sumatu zen barikuan Elgetako frontoi zaharrean.



Txikiturrik erre dituzte gaztainak aurten ere. | L.Z.



Umeak kantuan gaztainak jaso aurretik. | L.Z.

**ANTZUOLA**

## Maskulinitasun tailerra antolatu du Udalak azaroaren amaierarako

Maskulinitasunaren identitateak eta ereduak aztertuko dituzte azaroaren 30eko tailerrean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Emakumei umetatik emakume izaten erakusten zaien moduan, gizonetzoei gizon izaten erakusten zaie eta euren jarrera, balio eta jokabide askok heziketa honekin du zerikusia. Horren harira, gizonentzat eredu horretan bizitzea eroso den edo gizontasuna erakustera behartuta egoteak

deseroso sentiarazten dituen aztertze maskulinitasun tailerra antolatu du Udalak.

Maskulinitasun identitatei buruzko gogoeta egiteko hainbat galdera mahaigaineratuko dituzte: nola sortzen da? Zein sozializazio prozesu jarraitzen dira? Zer galarazten edo zer nolako ondorioak dituzte bai gizonentzat bai

emakumeentzat? Maskulinitasun ereduak, besteekiko harremanak eta bizitzako zenbait arlotan-lana, osasun, sexualitatea, lagunak, familia eta abar- duten eragina aztertuko dute tailerrean.

**Izen-ematea udaletxean**

Azaroaren 30ean izango da tailerra, 10:30etik 13:30era, Olanar etxean, eta On:Giz berdintasunaren aldeko elkarteko kide bat ariko da dinamizatzaile lanetan. Asmoa tailerra modu parte-hartzailean gauzatzea da, baliabide ezberdinak parte-hartzaileen eskura jarrita. Izena emateko udaletxera joan edo 943 76 62 46 telefono zenbakira deitu behar da.

**ARAMAIO**

## Herriko nazionalitate guztien banderak jarriko dira udaletxean

Madrilgo Gobernuaren aurrean errekurso aukera guztiak agortu ostean hartu du erabakia Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2011ko abenduaren 21ean Espainiako Gobernuaren notifikazioa jaso zuen Aramaio Udalak, Espainiako bandera udaletxeko kanpoaldean jartzeko eskatuz. Udalak ez zuen eskaera bete: "Bandera horrek ez du gehien-go aramaioarraren sentimendu eta nortasun ordezkatzen", diote egubakoitzean kaleratutako bandoan. Madrilen eskaera ez betetzeagatik prozesu judizialean sartu zen Udala eta dagoeneko errekurtsorako aukera guztiak agortu ditu: "Udala epai irmoa betetzera behartuta dago. Sententzia beteko ez balitz, estatu espainiarrak alkatearen inabilitazioari ekingo lioke".

Udalak, "inposaketa" horren aurrean herri batzar irekietan

hartutako erabakia beteko du: "Inposaketari buelta ematea erabaki zen, udalerrian elkarbizitza garatzen duten nazionalitate ezberdin guztien bandera jartzea. Modu horretan, herri batzarretan erabakitakoa aurrera eramanez, gure artean dauden sentimenduei bandera espainola bakarrik jarrita baino askoz hobeto erantzuten diogula uste dugu".

**"Nortasuna adierazteko" dela** Udalerrian dauden nazionalitate guztietako banderak jartzeaz haratago, Udalak honako deia egin du: "Inposaketa eta asimilazio ahalegin hauen gainetik, aramaioarrak gure herriaren nortasuna adierazi eta defendatzera animatzen ditugu".

## Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Eguna dela-eta, film baten proiektzioa eta elkarretaratzea

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Eguna izango da eta aurten ere Udalak zenbait ekintza antolatu ditu. Domeka honetarako, hilak 24, *Flores de otro mundo* (1999) filmaren proiektzioa antolatu dute; Kultur etxean izango da, 19:00etan. Itziar Bollain zuzendariaren filmak oso kritika onak jaso zituen. Bestalde, azken urteetako ohiturari eutsiz, azaroaren 25erako elkarretaratzea antolatu dute Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan hasita. Aldarrikapen eguneko ikurra den puntu morea ere jarriko du Udalak udaletxearen kanpoaldean.

**LEINTZ GATZAGA**

## Gatzagarren erretratuak egiten segituko dute

Ekimen bitxia dihardute lantzen: bizilagun guztiak erretratatzeko; erdiak eginda daude

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Urtea bukatu bitartean, gatzagarrek Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilari arrasatearraren bisita gehiago jasoko dituzte. "Gatzagan bizi diren guztiei, erretratu modura fondo beltz baten aurrean aterako dizkiet argazkiak, Udal Pilotalekuan. Dagoeneko bizilagunen erdiak edo atera ditut. Ekimenaren helburua da Leintz Gatzagak 2013an dituen bizilagun guztiei argazki bana ateratzea, eta horiek zelanbait argitaratzea. Azken hori zela egin oraindik erabakitzeke dago. Seguru aski, Udalaren webgunean argitaratuko dira guztiak, baina gero beste zerbait gehiago ere egin nahiko nuke", kontatu du Diaz de Tuesta argazkilariak.

Proiektuaren abiapuntua, berriz, da gehienetan herri bate-

ko bizilagunekin lotutako lanen bat egin izan denean, ezaugarri zehatzen bat duten bizilagunei ateratzen zaizkiela bakarrik argazkiak: pertsona ezagunak, nagusiak... eta helburua da bizilagun guzti-guztietatik ateratzea.



Erretratu bat. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

# GORBEIAKO ERRULETARA JOKATU

**6.000€**  
EROSKETA TXARTELETAN

**2.000**  
SARI ZIUR BAINO GEHIAGO

## ETA GAINERA!

### IRABAZI SARI BAT EGUNERO ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

AZAROAK 18: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
AZAROAK 19: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
AZAROAK 20: 1 edo 2 pertsonentzako lera Jr.  
AZAROAK 21: 100€-ko balioa duen jostailu sorta.

AZAROAK 25: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
AZAROAK 26: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
AZAROAK 27: Farmaziako Kosmetika saskia.  
AZAROAK 28: Produktu sorta: Grand Theft Auto V kamiseta, Heroe panpina, Mass Effect ontzia, Call of Duty kamiseta, MW2, Bizkar-zorroa, LEGO giltzatak, Alfonbra txikia, Taza

ABENDUAK 2: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.

ABENDUAK 3: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
ABENDUAK 4: Canon argazki kamera.  
ABENDUAK 5: Norautoko Patinetea.

ABENDUAK 9: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
ABENDUAK 10: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
ABENDUAK 11: Asteburua (ostatua eta gosaria) 2 pertsonentzat Playa Senator hoteletan  
ABENDUAK 12: Canon argazki kamera.

ABENDUAK 16: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
ABENDUAK 17: Carrefourreko 90€-ko erosketa orga.  
ABENDUAK 18: Decathlonko Bizikleta.  
ABENDUAK 19: Norautoko Patinetea.


Parte hartzeko bakarrik Gorbeia edozein dendatan gutxienez 10€-ko erosketa egin behar duzu.

Sustapenak 2013ko Azaroaren 18tik Abenduaren 21era iraungo du.

(\*) Ikus Oinarri osoak honako web-orri honetan: [www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)



**GORBEIA**  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)



# KIROLA

**FUTBOLA**

## Antzuola gehiago izan zen batez ere bigarren zatian

- ▶ Atzean zein aurrean fin ibili ziren Antzuolakoak
- ▶ Etxean galtzeak min handia egin dio Aretxabaletari

**EMAITZA**

ARETXABALETA

**1-3**

ANTZUOLA

**FITXA TEKNIKOA**

**Aretxabaleta:** Castellano, Sanchez R. (57. min., Rodríguez), Etxabe (64. min., Amutxastegi), Arriaran, Arroitzajuregi, Igartua (57. min., Gorosabel), Eraña, Meabe (51. min., Zaitegi), Perez (51. min., Arizmendiarieta), Sanchez I., eta Mar.

**Antzuola:** Iturbe, Asensio (88. min., Del Pozo), Lete, Longares, Agirre I., Arana (91. min., Zabalo), Godoy, Ibabe, Agirre O. (76. min., Zabala), Aranbarri eta Zubikarai (84. min., Larrea).

gokako lehenengo gola. 26. minutuan iritsi zen. Atzetik aurrera etorri eta jaurtiketa garbia egin zuen Jon Iturberen atera.

Gutxi iraun zuen etxekoen pozak. Lau minutu beranduago egin zuen berdinketaren gola Josu Zubikarai. Bultzakada tar-teko protesta handiak eragin zituen epailearen erabakiak harmailetan. Atsedenera iritsi aurretik nabarmentzeko beste jokaldia bat ere egon zen 35. minutuan. Gehiegi aurreratutako Antzuolako atezaina eta arriskuzko jokaldi batean bi jokalarik defendatu behar izan zuten atea. Jokaldi horretan bi jaurtiketa egitera iritsi zen UDA.

**Antzuolak beste bi gol**

Banakako berdinketarekin ekin zioten jokalariek bigarren zatian, baina Antzuola gehiago izan

zen. 48. minutuan iritsi zen Oinatz Agirreren gola. Aretxabaletako atezainari txapela egin eta sarrera joan zen baloia. Partiduko azken gola Mikel Ibabe egin zuen, 78. minutuan. Alboko sarea egin zuten Antzuolakoak eta hasiera batean aldaratzea lortu zuten etxekoen, baina bueltan etorri zen baloia eta buruz jo zuen Ibabe gola eginez.

Etxekoen ere sortu zituzten gol aukerak bigarren zatian. Aipatzekoak Oinatz Agirrek 66. minutuan eta 85. minutuan egingoak.

Norgehiagokaren amaieran pozik ospatu zuten garaipena antzuolarrek. Aretxabaletako jokalarien artean, ordea, atsekabea zen nagusi. Aipatzekoak Antzuolatik Ibarrara gerturatutako ikusle kopurua.



Antzuolako eta Aretxabaletako jokalariek nor baino nor. | IMANOL SORIANO



Antzuolako jokalariek gola ospatzen. | IMANOL SORIANO

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARETXABALETA  
Etxean jokatu zuen atzo, domeka, Aretxabaletak, eta aukera ikusten zuen Antzuolaren aurkako derby irabazteko. Arerioa, ordea, fin ibili zen, eta Antzuolakoak ondo baliatu zituzten etxekoen hutsegiteak.

Krespoi beltzarekin jokatu zuten norgehiagoka osoa antzuolarrek. Modu horretan, berriki hildako Julian Azkargorta izan zuten gogoan.

Derby interesgarria izan zen. Gol aukera dezente egon ziren, baita jokaldi politak ere. Berehala iritsi zen lehenengo gol aukera: Antzuolako Josu Zubikarai egin zuen zortzigarren minutuan. Aretxabaletak ere sortu zuen aukera bat baino gehiago: Iker Sanchez fin ibili zen 11. minutuan. Baita Aitor Perez ere 18. minutuan.

Hain zuzen ere, UDAko Iker Sanchezek egin zuen norgehia-

**IGOR ARENAZA** | ARETXABALETAKO KOORDINATZAILEA

### "Orain arteko bolada ona mozten digu honek, eta min handia egiten digu"

Aretxabaletan gogorra izan da atzoko porrota.

**Zure ustez emaitza justua da?**

Justua edo ez hori da emaitza. Etxean galtzea gogorra da. Uste genuen gai izangoginela irabazteko. Orain arteko bolada ona ere mozten digu honek, eta min handia egiten digu.

**Zein izan da arazoa?**

Gola egin dugu eta beste bi aukera garbi ere izan ditugu, baina jokaldi arraro batean berdindu egin



LZ

dute. Bigarren zatian Antzuola askoz ere gehiago izan da.

**Nola ikusi duzu Antzuola?**

Antzuolak bere maila eman du. Gora begira beti, eta atzean sendo. Bagenekien talde gogorra dela, eta gol asko egiten dituela. Gaurkoan, guk hutsegini dugu.

**Aurrera begira jarriko zarete orain?**

Partiduz partidu joan behar dugu, eta aste barruko lana garrantzitsua izango da. Ez dago besterik.

**JON ITURBE** | ANTZUOLAKO ATEZAINA

### "Atzean pare bat akats izan dituzte eta nire ustez hor egon da partidua"

Txanponaren beste aldean Antzuolako jokalarien poza.

**Espero zenuten garaipena?**

Bagenekien oso zaila izango zela. Aretxabaleta talde ona da, goian egoten den horetakoa. Zelaia, gainera gurea baino handiagoa zen. Lan eta borroka asko egin dugu, baina azkenean lortu dugu irabaztea.

**Lehenengo gola, ordea, etxekoen egin dute.**

Bai. Askotan behera egiten dugu horrelakoetan, baina ematen due-



LZ

nez gaurkoan indarra eman digu eta berdintzea eta irabaztea lortu dugu.

**Nola ikusi duzu Aretxabaletako taldea?**

Ondo, baina atzean pare bat akats izan dituzte guk ondo baliatu ditugunak, eta hor egon da partidua. Bigarren zatian, bestalde, oso ondo ibili gara atzean.

**Hurrengo partidura begira, orain?**

Bai. Hemen ez du inork ezer barikatzen eta liga gogorra da.

## OHOREZKO ERREGIONALA

## Bina goleko berdinketa Aloña Mendiren eta Anaitasunaren arteko norgehiagokan, atzo, Oñatin

L.Z. / I.G. | OÑATI

Sailkapeneko goialdean dabilen Anaitasuna hartu zuen atzo Aloña Mendik Azkoagainen. Oñatiarrak nahiko txukun aritu ziren lehen zatian: joko ona eta zelaian eroso kokatuta. Horrenbestez, gol bat ere egin zuten. "Goitik behera dominatu ditugu lehen 45 minutuak, baina bi aldaratzetan gol bana egin dizkigu arerioak", adierazi zigun norgehiagokaren amaieran Azkargorta entrenatzaileak. Horrelakoak ordaindu egiten dira eta markagailuan 1 eta 2ko emaitzarekin joan ziren atseinaldira etxeokak.

## Bigarren zatia, parekatua

Bigarren zatian parekatuago egon ziren bi taldeen indarrak. Oñatiarrek ez zuten erreakzionatzea lortzen eta markagailua gelditu egon zen denbora luzez. "Lehia amaitzeko hamar minutu gelditzen zirenean lortu dugu berpiztea. Azken unean, denboraz kanpo, lortu dugu bigarren gola. Beraz, justu-justuan eskratu dugu berdinketa", zihoen entrenatzaileak.

Hurrengo partiduan sailkapeneko azkenaren, Lagun Onak, etxera joango dira. "Partidu arriskutsua izango da, baina irabazi beharrekoa".



Oñatiko jokalaria berdinketaren bila. | IMANOL SORIANO

## OHOREZKO ERREGIONALA

## Berdinketarekin itzuli zen atzo Bergara Hondarribitik

"Garaipenarekin itzultzeko asmoarekin joan gara Hondarribira, baina berdinketarekin konformatu behar izan dugu", adierazi zuen atzo Bergarako entrenatzaile Aitor Arratek. Mahoneroek ondo hasi zuten norgehiagoka, baina defentsako akats baten ondorioz jaso zuten lehenengo gola 15. minutuan. "Helburua, orduan, ez galtzea izan da, eta 70. minutuan egin dugu berdinketaren gola". Andoni Nafarrate jokalaria egin zuen gola.

## PREFERENTEA


## Mondrak 0-1 irabazi zuen atzo Azpeitiko Garmendipen

Atzo Ikasberriren aurka jokatutako norgehiagokaren ostean sailkapeneko hirugarren postuan da Arrasateko taldea. Garaipenarekin itzuli ziren Azpeititik eta liderrarengandik —Urola taldea— hiru puntura kokatu dira sailkapenean. Lau talde daude puntu bakarreko aldearekin, eta gogor saiatu beharko dute arrasatearrek taulako lehenengo postuetan jarraitzeko. Datorren astean Tolosa —10. sailkatua— hartuko dute Moja-gegin.


**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)  
**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)



**Birziklitzeko erraztasunak ematen dizkizugu.**



**Zatoz eta informa zaitez!**



TXAKUR LASTERKETA

# Lur gainean entrenatu eta gero, elurretara joateko unea da

Itoitz Armendaritz 'musher' eskoriatzarrak Alpen-Trail lasterketan parte hartuko du urtarrilaren 17tik 25era

GOIATZ ARANA | ESKORIATZA

Elsa, Ipar, Frida, Lagun, Oker, Xiba, Irati, Guma... 11 guztira. Itoitz Armendaritz musher eskoriatzarraren taldeko txakurrak dira, eta egubakoitzean aurkeztu zizkigun Eskoriatzan bertan, Ibarraundi museoaren kanpoko aldean. Uluka aurkitu genituen bertaratu ginenean, euren erara protesta egiten, nahiz eta eurentzako moduko giroa zegoen: hotz egiten zuen.

Egun bizi den tokitik, Lukotik, ekarri zituen Armendaritzek, furgonetari lotutako karroan sartuta. Museoaren aurreko aldeko zelaira atera zituen, ilaran lotuta jarri, eta jaten eman: arroza eta okela, ur beroarekin nahastuta. Ulurik ez zen orduan, mingainarekin miaztuz dantzan jarri zituzten metalezko ontzien zarata baizik. Eta behin bukatutakoan, atzera ere euren txokora; botatzen zuen euri zaparradarekin, *musherrak* museo barruan hitzaldia egin bitartean blai geratuko lirake osterantzean.

## Ikusmina

Txakurrek bultzatutako lerekin mendian egiten diren lasterketei deitzen zaie *mushinga*; elurretan, nahiz lehorrean praktikatu daitekeen kirola da. Eta eskarmen-tua duen *musherra* da Itoitz Armendaritz. Kirol hori ezagutaraztera, lasterketetan parte hartzerakoan erabiltzen duen materiala erakustera, txakurrekin duen erlazioa azaltzera eta, denboralditik kanpo, *musherraren* egunerokotasuna nolako den kontatzea etorri zen. Armendaritz hizketan entzutea eta txakurrekin hartu-emanen ikustea nahikoa izan zen egiten duen horrek berarentzako suposatzen duenaz jabetzeko: bizi egiten du *mushinga*. Gozatu egin zuen egubakoitzeko saioan eta goza erazi egin zien hitzordura batutako

30-40 lagunei. Haur, gazte eta helduek arretaz jarraitu zituzten Armendaritzen azalpen eta mugimenduak, eta galderak egiteko ere baliatu zuten aukera, *mushinga* kirol ezezaguna delako askorentzat oraindik.

## Genetika, elikadura eta ariketa

Ehiza txakurrarekin nahastutako husky siberiarrak dira Itoitz Armendaritz 11 txakurrak: taldea osatzen dutenak hamar eta zortzi hilabeteko txakurkume bat. Ez dago arraza moduan errekonozituta, baina eurentzako izango balitz moduan da; eta irabazitako lasterketak, txapelketak emaitzak, dira pedigria *mushingean*.

Txakur oso onak dira genetikoki, "perfekzioetik hurbil daude", eta *musherraren* esku daude elikadura eta entrenamendua; hiru horiek dira, hain justu, oinarriak. Armendaritzek egunean behin

ematen die jaten: arroza okelarekin (egun batean oilaskoa eta bestean txekorra), urarekin nahastuta. "Kirolariak direnez, oso garrantzitsua da lasterketetan hidratatua edo gain-hidratatuta irtetea", dio. Eta pentsuari dagokionez, garbi ditu ideiak: "Orduan eta naturalago jan, gehiago errenditzen dute, eta lesio eta gaixotasun gutxiago izaten dituzte. Urtetan eman diet pentsua, baina duela sei urte elikadura aldatu nuen eta frogatu dut ez dela ona; eroso bai, baina ona ez".

Entrenamenduei dagokienez, ikerkuntza dela dio eskoriatzarrak, baina lasterketetara joanez eta esperientziarekin ikasten dela hori ere. Baina egingo duzun lasterketa motara bideratuta prestatzea da abiapuntua. Armendaritzek distantzia erdiko lasterketak egiten ditu, 25-60 kilometro artekoak eta bi modutara entrenatzen ditu txakurrak. Hemen dauden bitartean, lur gainean entrenatzen dira, quad batekin. Intentsitate handiko saioak izaten dira eta poliki egiten dute lan, lurra oso agresiboa delako hanketarako nahiz muskuluetarako. Txakurren indarra eta potentzia lantzen dituzte modu horretan, eta elurretara joaten dira ostean.

Orduantxe hasten da benetako gozamina. Lasterketa baino hilabete-hilabete t'erdi lehenago elurretara joaten dira, eta abiadura lantzen dute han: "Txakurra ordurako fuerte dago eta lesio gutxiago egoten dira". Entrenamendua progresiboa da, beraz.

## Emeak aurrean, arrak atzean

Armendaritzek aurrean, taldea gidatzen, jartzen ditu txakurrik azkarrenak -buruz eta fisikoki- eta horiek emeak izaten dira normalean; atzean, aldiz, indartsuenak, arrak gehienetan. "Garrantzitsua da nola lotzen dituzun" dio. Lepo-

## Historia ala anekdota?

Egun kirola dena garraibide izan zen antzina eta liburuek diote gizakien herri bat salbatu zutela txakurrek: orain 100 urte inguru, Alaskako herri batean izurrite bat sortu zen. Urtarril, otsail, martxo ingurua izan behar zuen nonbait, eta ez zegoen bertara medikamentuak eramateko modurik. Gizonezko bat boluntario aurkeztu zen orduan, txakurrek bultzatutako lera gidatuz bertaraino ailegatzeko. Botikak eraman eta izurritea zabaltzea saihestu zuten.



Itoitz Armendaritz eta bere txakurrak, iazko Alpen-Trail lasterketako une batean. Toki zoro



Jana banatzen, egubakoitzean Ibarraundin, bertaratutakoaren begiradapean. | IMANOL SORIANO

tik eta gorputzetik lotuta joaten dira, arnes bidez: "Lepotik, gidatzeko, eta zabaldu ez daitezen; eta gorputzetik, indarra egiteko. Indar guztia arnesarekin egiten dute, atzeko sokatik, eta oso garrantzitsua da traxzioa ez galtzea, bestela oreka galtzen delako eta erorketak edo lesioak izan daitezkeelako.

## Hitzeko komunikazioa

Ezkerrera edo eskuinera joan behar duten esateko, animoak emateko... garrantzitsuak dira *musherrak* txakurrei esandako hitzak. Eta garrantzitsua da abiadura kontrolatzen jakitea ere:

"Lasterketa hasieran ematen dizute profil bat, eta bertan ikusten da dagoen desnibela. Oso garrantzitsua da hori ondo aztertzea, estrategia on bat diseinatzeko. Lasterketa bukaeran aldapa gora baldin badago, adibidez, komeni da indarrak gordetzea. Horra osorik heldu behar da taldea, eta hor dago gure lana". Lerak azpiko aldean duen gomazko tapiz batekin kontrolatzen du abiadura: freno batekin kontrolatzen du tapiza; eta tapizarekin, abiadura. Eta *musherraren* esku badago besterik: lasterketako etapa bakoitzera zenbat eta zein txakur eraman jakitea, eta txan-





garrrietatik igarotzen da proba, atzean ikus daitezkeen Tirolo mendiek erakusten duten moduan. | ITOITZ ARMENDARITZ



Armendaritz eta bere taldea lur gaineko lasterketa batean, lau erruberadun motorrarenekin. | I.A.



Eskoriatzarrak Lukoko etxe ondoko lurretan ditu gaur egun txakurrak. | I.A.

daka deskantsua ematea. Egun askotako lasterketetan, estrategia jokoa ere badago, beraz.

Garrantzitsua da *musherra* bera ere forma fisiko onean egotea. "Batuetan, akatsa izaten da norbera ez entrenatzea", dio eskoriatzarrak. Udan bizikletan eta korrika ibiltzen da, eta neguan kiroldegira joaten saiatzen da astean birritan. Baina fisikoak bezainbesteko garrantzia gutxienez badu buruak ere; alde psikologikoak pisu handia du.

**Denboraldia hasteko puntuan**  
*Mushingean* ez dago ez zapatu ez domekarik eta lana suposatzen

du urtean zehar, beste ezer baino gehiago. Urte osoko lanaren emaitza ikusteko momentua gainean dago, ordea: abendu erdialderako Frantziako Alpeetan izango da Itoitz Armendaritz, elurretan entrenatzen; eta urtarrilean, handik Italiara joango da, Alpen-Trail lasterketan parte hartzera. Zerapeko tenperaturekin, gustura izango dira txakurrak; gorriagoak ikusiko ditu seguruenik *musherrak*, baina berdin dio. Urte osoan izan du lasterketa hori buruan eta errepidera irteteko desiratzen dago. Konfiantza osoa du bere taldearengan eta itxaropentsu dago. Zorte on Itoitz!

## Lau lasterketatan izango da

Urtarrilaren 17tik 25era Italian jokatu den Alpen-Traila da denboraldiko lasterketa garrantzitsuena Itoitz Armendaritzentzat; iaz bosgarren egin zuen. Horrez gain, joango da Galiziara eta Baqueira Beretera, Espainiako lur gaineko eta elur gaineko txapelketetara; azken urteetan podiuma egin du bietan. Eta joango da Soriara ere, Covaleda eta Vinuesa ingurura, proba berri batean parte hartzera. Finlandian jokatu den Europako txapelketarako ere sailkatuta dago, baina ez da joango. "Espainiako Selekzioak ez du ia laguntzarik ematen —neguko kirol federazioak eskian xahutzen du diru gehiena—", eta gastu handiegia da osorik bere gain hartzeko.



Itoitz Armendaritz, Eskoriatzako Ibarraundin. | I.S.



## ESKALADA

Mikel Linazisoro | Eskalatzailea

# "Leku berean erortzen nintzen baina metodoa aldatuta lortu nuen igotzea; asko poztu nintzen"

- ▶ 13 urterekin Araotzeko 'Koldoren Mundua' egitea lortu du, 8C+ zailtasuna duen pareta
- ▶ Zailtasun hori gainditzen duen Espainiako eskalatzaile gazteena da bergararra

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

13 urte eta hiru hilabete eskasekin, 8C+ zailtasuna duen *Koldoren Mundua* igo berri du Mikel Linazisoro eskalatzaile bergararrak. Araotzeko beste horma aipagarri batzuk ere igo ditu azken urtean, baina 8C+ zailtasuneko bat igotzen duen Espainiako eskalatzaile gazteena da; badirudi Mikelen progresioak ez duela mugarik. Araotzen eta Ibarako rokodromoan entrenatzen du normalean; Aretxabaletan hartu gaitu, lotsatuta. Ulertzekoa denez, horman erosoago sentitzen da kamera aurrean baino.

**Zorionak lorpenarengatik, hasteko. Pozik, ezta?**

Bai, oso pozik. Kosta zitzaidan, hormaren erdialdean dagoen igarobide baten erortzen nintzen-eta, beti berdinean. Lortu nuenean asko poztu nintzen.

**Zergatik aukeratu zenuen *Koldoren Mundua*?**

Nire entrenatzaileak esan zidan teknikoki oso zaila zenez asko ikasiko nuela. Eta hala izan da, pasabide batzuk oso zailak ziren eta metodo berriak ikasi ditut.

**Zenbat saiakera egin zenituen helburua lortzeko?**

15 bat egingo nituen. Esandako moduan, beti leku berdinean erortzen nintzen. Hala, helburua lortu aurreko egunean metodo berri bat aurkitu nuen; hurrengo egunean gainditu nuen metodo berri hori aplikatu nuelako.

**Egin dezagun atzera. Nola hasi zinen eskalatzan?**

Nire anaiaren entrenatzaile batekin hasi nintzen. Egunen baten probatu gura nuen galdetu zidan, orduan 4 edo 5 urte nituen. Hortik aurrera familiakoekin hasi nintzen. Asko gustatu zitzaidan eta gero eta gehiago hasi nintzen joaten. Orduetik ez diot eskalatzeari utzi.

**Zer da eskaladak ematen dizuna? Zergatik harrapatu zaitu?**


Kirola bera asko gustatzen zait, oso kirol polita da. Gainera, helburu bat betetzen duzunean sekulako poztasuna ematen du, ezin daiteke hitzez azaldu. Era berean, eskalada munduan ari den jendeak asko betetzen nau, oso jatorrak dira.

**Gomendatzeko moduko kirola dela esango zenuke? Zergatik?**

Kirolaz gozatzeaz gain, oso ondo pasatzen dugu hemen, familia txiki bat gara.

**Zenbate entrenamendu egiten dituzu astero?**

Aste bukaeretan Araotz inguruan ibiltzen naiz normalean. Ondo dago, etxetik gertu. Bestela autoan



Mikel Linazisoro, 'Koldoren Mundua' egiteko saiakeran. | DARIO RODRIGUEZ/DESLEVEL

bidai luzeak egin beharko nituzke. Aste barruan, berriz, martitzen eta eguenetan Aretxabaletara etortzen naiz. Eguaztenetan ere entrenatzen dut batzuetan.

**Bergaran badago rokodromoa. Zergatik Aretxabaletakoa?**

Berria da eta oso ondo dago. Handia da eta Bergarakoa baino

hobeto dago; heldulekuak-eta, dena dago berriago. Hona etortzen gara gehienok.

**Amaitzeko, ze asmo dituzu etorkizun hurbilerako?**


Neguan Baltzola [Bizkaia] aldera joango naiz. Han baditut helburu batzuk eta horiek betetzen saiatuko naiz.

**"Entrenatzaileak esan zidan asko ikasiko nuela, oso teknikoa delako"**

**"Jendea oso jatorra da hemen, familia txiki bat osatzen dugu"**

**"15 bat saiakera egingo nituen, beti erortzen nintzen puntu berdinean"**

**"Neguan Baltzola aldera joango naiz; helburu batzuk bete gura ditut han"**



Linazisoro, Ibarako rokodromoan, entrenamenduaren aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

## Josean Mulas: "Gozatzen jarrai dezala"

Ukaezina da Debagoienak eskalatzaileen harrobi ederra duela. Horren errudun nagusietako bat da Josean Mulas, harena izan zen-eta gure ibarrean eskola bat sortzearen ideia. Mikelek gurasoekin ezagutu zuen eskalada, eta eskolara heldu zenean hasieratik nabarmendu zuela gogoratzen du Mulas: "Heldu eta berehala gailendu zen, eta lau hilabete eskas egin zituen eskolan. Gero nik hartu nuen, trebatuagoak daudenekin aritzen naiz-eta". Azken bi urteetan 8A egitekin 8C+ egitera pasa da eta hori "jauzi handia" dela dio Mulas: "Oso denbora gutxian zenbakietan gora egin du oso azkar. Ez da izan helburuetan itsutu ginelako, baizik eta zailtasun berriak ondo gainditzen zituelako. Finean, gura izan duena igo du orain arte".

**"Koordinazioa eta erresistentzia handia ditu; berezko dohaina du eskaladarako"**

Gaitasun handiak dituela agerikoa da: koordinazioa eta erresistentzia azpimarratzen ditu entrenatzaileak: "Eskaladan keinua esaten zaio. Koordinazio eta erresistentzia handiko eskalatzailea da, berezko dohaina du eskaladarako. Orain atzamarretan

indarra hartzen ari da, hori ere oso garrantzitsua da-eta". Beraz, non dago muga?: "Ezin daiteke jakin. Beti esaten dudana esango dizut: eskaladarekin gozatzen jarrai dezala, besterik ez. Une bakoitzean joango da bere muga bilatzen. Orain arte 8C+ zen bere muga, orain beste baten bila joango da. Non geratuko den? Lesioek uzten badiote, Mikel denbora luzerako izango dugu". Noski, 13 urte besterik ez eta gehiagorako gose handia: "9A probatu gura du; joango gara, ez dago prisarik". Atzean utzi berri dugun aste bukaeran eta oraingoan Euskadiko txapelketan ari da parte hartzen -zapatu honetan, ez badago azken orduko arazorik, Aretxabaletan egingo da-.

Amaitzeko, Debagoieneko eskalada osasunez nola dagoen galdetuta, honakoa esan digu Mulas: "Euskal Herriko potentzial handiena dugu Debagoienean. Baileratik kanpo badaude eskalatzaileak, baina oso gutxi. Hemen, proportzioan, askoz gehiago ditugu". Ikusi besterik ez dago Ibarra kiroldegiko rokodromoan zenbat lagun elkartzen diren, adin guztietakoak.

# Haurdunaldiaren prozesu biologiko eta soziala aztergai Imazen tesian

Emakumearen ama izan beharra XVIII. mendetik datorrela dio bere lanean

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Elixabete Imaz antropologia irakasleak Hego Euskal Herriko gaur eguneko amatasuna aztertu du bere tesian. *Hik Hasi* aldizkarian adierazi duenez, 11 emakumek haurdunalditik haurraren lehen hilabeteetara izandako bizipen, prozesu biologiko eta soziala jaso ditu. Eta tesia *Convertirse en madre* liburura moldatu du.

Ondoko herrialdeekiko garapen ezberdina ez izan arren, Euskal Herriak haurren jaiotze-tasa baxua berezko ezaugarri duela ondorioztatu du Imazek: "Lehen umearen jaiotzean amaren adina, eta adin-media oso antzekoak dira, (amatasunaren adin

media 32 urtekoa da, eta lehen amatasun adin media 30 da). Horrek esan nahi du emakume askorentzat lehen umea eta azkena berdinak direla".

## Ama izaten ikasi

Ama izaten ikasi egiten dela uste du: "Eredu bat jasotzen dugu, eta sozializazio-eredu bat aktibatzen da. Gizartearen aldetik exijentziak daude, eta norberak ere eredu bati erantzun nahi dio".

Amatasuna desnaturalizatzeko historiari begiratu behar zaio: "XVIII. mendean, Ilustrazioarekin, natura bihurtu zen guztiaren oinarri eta kausa. Momentu horretan hasten dira

esaten emakumearen lekua ama izatea dela, bere natura propioak horrela esaten duelako".

## Amatasunerako askatasuna

Imazek ez du argi egun zenbateko askatasuna dagoen ama izatea erabakitzeke eta presioa eragiten duten bi faktore aipatzen ditu: ingurua eta menopausia. "Emakumeek ez balute menopausiarik, emakume asko ez lirakeke inoiz ama izango", dio eta ikerketan parte hartutako denek amatasuna atzeratuko luketela baieztatzen du. "Jende gehienak ez du erabakitzen ama izatea, baizik eta ama ez izateari uztea", azaldu du tesia-ren egileak.



Haurdunaldiko azken hilabeteetan dagoen emakumea. | YESKEFO

## Helduek haurrei erraztasunez eskatzen dizkiete gauzak, helduekin exijentzia maila bera izatea kosta egiten da

Itziar Bartolome psikologoak uste du helduen arteko hezkuntza tabu gisa bizi dela eta ez dela kritika modu konstruktiboan eta maitasunez egiten ikasi

I.E. | ARRASATE

Helduen arteko harremanetan, batez ere gatazkatsuetan, komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza trakets samarra da, Itziar Bartolome psikologoaren iritziz. "Ausartago, naturalago eta sortzaileagoak gara haur edo gazte-oxekin ditugun gatazkak kudeatzeko erabilitako hizkuntza".

Pertsona helduek haurraren hezte prozesuan bideratzaile lana egiten dute, modu kontzientean. "Badakigu, hala ere, haurrak hezteko bizi dugun prozesuan gu ere etengabe ari garela ikasten eta garatzen. Ondorioz, nagusi eta txikiak elkar elikatzen dugu", dio Bartolomek.

Nagusiak haurrentzat eredu eta erreferentziatzeko pertsona garelako dio psikologoak: "Ez bakarrik eurekin zuzenean erlazionatzen garenean, baita helduok gure artean egiten dugunean ere".

## Helduen arteko harremanak

Haurrak inguruan daudenean koherentzia falta nabarmenak ikusten ditu Bartolomek helduen arteko harremanetan: "Hizkuntza ohiturarena oso tipikoa da, hau da, haurrari euskaraz egiteko eskatu eta zure lagun helduari ez. Edo haurrari eskatu papera zakarrontzira bota dezala eta heldu bati ez, eta abar. Haurrei exijitutakoa ez diegu helduei exijitzen, ez aurpegira".

Basozain gazte batek kontaktutako adibidea ekarri du gogora Bartolomek: "Esaten zidan, bere



Errazagoa da haurren ekintzak zuzentzea. | PRAKTIKATU

lanbidea biziki maite arren, latza egiten zaiola heldu bati esan behar izatea basoko araua errespetatzea, eta aldiz, ez zaiola hori gertatzen haur txiki batekin".

"Askotan, pertsona heldua dut aurrean, nekazari, ehiztari edo herritar mendizalea... baina bere erantzuna arauaren aurrean haur txiki batena da. Halakoetan egoera gogorra da niretzat, bakezalea naiz eta ez dut jakiten nola kudeatu. Zein hizkuntza hitz egin behar diot?", azaldu ei zion lagunak.

Bartolomek berehala ulertu zuen basozainaren sentimendua berak ere bizi izan duelako. "Heziztailea izanik, askoz gehiago kostatzen zait heldu batekin gatazka egoera bat kudeatzea, haur

edo gaztetxo batekin baino. Miatu dut inguruko helduen artean, eta sentsazioa nahiko orokorra da", dio.

## Helduen hezkuntza, tabu

Ildo horretan, helduen arteko hezkuntza "tabu modura" bizi dela uste du. "Ez dugu ikasi kritika modu konstruktiboan eta maitasunez egiten, ez gara ohitu eta ez dakigu gure eguneroko martxan helduen artean egiten, haurrekin horren natural egiten duguna".

Horren aurrean helduen hizkuntza sentitu eta pentsatutakoa edozein egoeratan eta edonoren aurrean modu lasai eta irmoan aurkezteko balio beharko lukeela uste du Bartolomek.

## EAEen eskola-umeen %39k bihotz-hodietarako gosari osasungarria egiten du

6.348 haurrengana helduko da aurten EAEko umeentzako gosari osasungarrien egitasmoa

I.E. | ARRASATE

Aste honetan jarri da martxan Bihotz Bizi Elkarteak antolatzen duen bihotz-hodietarako gosari osasungarrien XIV. edizioa. Bilbon eman zaio hasiera egitasmoari eta aurten inoizko parte-hartzerik handiena izango du: 144 ikastetxe eta 10-11 urteko 6.348 ikasle.

Haurrek goizero behar bezala gosaltzeak duen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzeko antolatzen da egitasmoa eta iaiz parte hartu zuten ikastetxeetan jasotako datuen arabera, "ohituretan hobekuntzak hauteman dira baina hainbat puntutan lanean jarraitu behar da. Inkesta betetakoen % 39,2ak behar bezala konbinatzen ditu

elikagaiak -esnea, fruituak eta zerealak- gosaritan. Osoko ogiaren kontsumoa eta oliba-olioarena ere goraka doaz.

Dena den, opilen kontsumoa handia da eta inkestan parte hartutako % 40ak maiz jaten dituzte. Gainera, % 60k ez du esnekirik hartzen.

## Gosari osasungarria

Gosaria eguneko otordu garrantzitsua da eta eragina du errendimendu fisikoan eta eskolakoan Gainera, elikadura orekatua mantentzen laguntzen du eta baita pisua kontrolatzen ere. Gosari onak osagai hauek izan behar ditu ezinbestez: zerealak, fruta, esnekiak eta oliba-olioa.



Ikasle taldea jangelan gosari osasungarria egiten. | SAN BIZENTE IKASTOLA

# KULTURA



Anthony Blake, Eskoriatzatik etorritako Liernirekin mentalismoa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Telefonoz beste aldetik semeak esandako zenbakia asmatu zuen Blakek. | J. A.

## Adimena kontrola daiteke, ala ez?

Anthony Blake mentalista ospetsua baiezkotan dago, eta erakustaldia egin du aste bukaeran Elgetan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ikusleak dira bere ikuskizunetan protagonista; berdin du erregistroak edo diziplinak. Eta aste bukaera honetan ere horrela izan da Elgetan. Bina ordu pasatxoko bi saio egin ditu Espaloia kafe antzokian Anthony Blake ospetsuak, eta ikusleen artean aukeratutako lagunekin ezin sinetsizko ariketa mentalak egin ditu oraingoan ere.

Zapatuko saioan adin ezberdinetako 15 lagun zituen Blakek oholta gainera, eta beste hainbeste domekakoan. Esan beharra dago, gainera, ariketa eta demostrazio ezberdinak egin dituela bi saioetan. Onartu behar zaio diziplina batekin baino gehiagorekin osatu duela *Más allá de la imaginación* ikuskizuna.

**Komunikaziorako gaitasuna**  
Adimena kontrolatzea posible dela defendatzen du Anthony Blakek, eta erakustaldi bat baino gehiago egin zuen Elgetan. Guztion harridurarako, ikusleek buruan irudikatutako hitzak eta zenbakiak asmatu zituen, behin baino gehiagotan. Intui-

zioaz egiten du berba mentalistak. Horrelakoetarako gizaki batzuk beste batzuk baino gaitasun handiagoa dutela dio, sentsibilitate berezi bat. Harren edo sintonizazio gaitasunari buruz hitz egiten du, eta komunikazio efektu berezi hori sortzeaz. Blakek 30 urte daramatza

mentalismoa egiten, eta asko dira ibilbide horretan garatu dituen gaitasunak. Ariketa praktikoaren bitartez frogatzen ditu gaitasun horiek, eta azken bisita honetan guztia ez da berria izan. Ikusle baten banku txartelaren zenbaki sekretua asmatzea, buruan irudikatutako

hitzak edo pertsonaia baten izena asmatzea, edozeinen jaitze data asmatzea... Berriak ez izanagatik, ordea, ikusleen artean beldurtzerainoko harridura sortzen jarraitzen duten ariketak dira. Ze azalpen du lagun batek arbel batean margotutako irudi berdina inongo

pistarik jaso ez duen beste batek bere arbelean margotzeak? Ariketa hori berria zuela esan zuen Blakek, Elgetan egin zuela estreinaldia, eta azalpen moduan komunikazio efektua aipatzen zuen. Bi lagun horien artean sortutako koneksioa. Zentzuen transmisioa.



Begiak estalita, ikusleek Sandrari ze lau gauza eman zizkieten asmatu zuen. | J. A.

**ANTHONY BLAKE** | MENTALISTA

**"Ez ezazue laga antzokietara etortzea: antzokiak kultura dira, askatasuna dira"**

Orain 10 urte izan zen Anthony Blake lehen aldiz Elgetan. Denbora honetan sei aldiz izan da Espaloian, eta etortzen jarraitu gura duela dio.

**Zer sortu da Anthony Blake eta Espaloia artean?**

Harreman oso polita. Oraingoan ere oso gustura nago saioek emandakoarekin. Jendeak parte hartu du, eta nirekin batera egin dute ikuskizuna. Horrek ematen dio zentzua nire lanari, eta oso eskertuta nago.

**Zein da sekretua hainbeste urtean lehen lerroan egoteko?**

Ez dago sekreturik. Lana, lana eta lana... eta, batez ere, egiten duzuna benetan gustukoa izatea. Gozatu

egiten dut egiten dudarekin, eta jendeak jaso egiten du ilusio hori. Ikasten jarraitzeko grina, ikuskizun berri bat sortzeko indarra... Orduak eta orduak ematen ditut lanean, eta konturatu gabe joaten zait denbora hori, gainera. Zorte handia da!

**Askotan izan zara Espaloian, eta aurrekoetan ez bezala alegatu edo salaketa batekin amaitu duzu ikuskizuna?**

Bai. Egoerak eskatzen duela uste dut, izan ere, ez dago eskubiderik. Kulturari ezartzen zaion BEZa %21 da. Futbolaren kasuan %10 da, eta pornografiaren kasuan %4. Zer iruditzen zaizu? Ditugun agintariak egiten ari direnak ez du izenik. Herritar ikasiek galderak egiten dituzte, eta galderarik egiten ez duen gizartea nahi dute. Zailtasunak zailtasun, jendea eskatu nahi diot antzokietara etortzeari ez uzteko; antzokiak kultura dira, askatasuna dira.

**Begiak itxita ere bai**

Azken ariketarako bi lagun zituen mentalistak zapatuan oholta gainera, eta bere begiak estaltzen zituen bitartean ikusleen artean lau objektu jasotzeko eskatu zion bietako bati. Objektu horiek ukitu, ikusi edo usaindu barik zer ziren asmatu zuen. Gehiago ere egon zen: begiak estalita nortasun agiri bat eskuetan hartu eta pertsona horren izen-abizenak, izazera, gurasoen izenak eta bestelako hamaika detaile asmatu zituen. Eta betiko moduan, ikuskizunak iraun zuen denboran ikusitako eta sentitutako guztia gure irudimenak eragindakoa izan zela esan zuen. "Ez eman buelta gehiago, ez du zentzurik", amaitu zuen.



Eñaut Elorrieta kontzertuko une batean, atzean dekoratu abstraktu bezain iradokitzailea duela. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

## Eroso Amaia antzokiko deserrian

IURE EIZAGIRRE | ARRASTE

Deserria, distantzia markatu eta tristuraz, nahigabez zein iluntasunez beteriko munduko txoko hori; Eñaut Elorrietak bere kontzertuetan dozena bat aurpegi marrazten dizkiona. Gogorra izanagatik deserria, Elorrietak eroso sentiarazi zituen bertan zapatuan Amaia antzokira hurbildutako arrasatearrak nahiz kanpotik etorritakoak.

Memoria historikoarekiko konpromiso argia erakusten du Elorrietak *Deserriko kantak* diskoan eta bailara une latzak bizitzaren ari den garaiotan ez zuen alde batera utzi bere konpromi-

so soziala. "Langile borroka eta langabeziaren deserria bizitzen ari diren langile horiei; gaurko abesti eta txalo guztiak Fagorrenko langileentzat, dudarik gabe", esanez hasi zuen kontzertua. Euredako izan zen, bada, emanaldiko lehen txalo zaparrada.

Doinu lasaiekin ekin zion lanari Elorrietak baina kontzertuak aurrera egin ahala erritmo azkarragoak eskaini zituen. Eta orduan hasi zen publikoa ere kontzertuaren parte izaten. Musikari gernikarrak hala eskatuta, Portugalgo Krabelinen Iraultzako borrokalari bihurtu ziren antzokian batutako 300ndik gora

gazte nahiz heldu. Lurraren aurka behin eta berriro kolpatutako hanka hotsek lagundu zuten Elorrietaren ahotsa, Jose Alfonsoren

### FITXA

MUSIKA

EÑAUT ELORRIETA, 'DESERRIKO KANTAK' DISKOAREN BIRAKO KONTZERTUAN

Estiloa: Pop rock.

Non: Amaia antzokia.

Eguna: Zapatua, azaroak 16.

Iraupena: 87 minutu.

*Grandola Vila Morena* abestian. Txaloen ordez, hots bera jaso zuen Elorrietak esker on gisa.

### Gernika gorria

Ekin berria duen bakarkako ibilbidean ere gertuko abeslaria izaten jarraitzen du Elorrietak, eta ez kanten letretan bakarrik. Bere amamaren begirada ekarri zuen antzokiko agertokira, 76 urte atzera egin eta bombardaketaren ondorioz, 11 urterekin utzi behar izan zuen Gernika irudikatzeke. Abeslariak barrenetik ahoskatutako izen bakoitzaren ondotik bestelako itxura hartu zuen dekoratuak: gorritz argizaturik, lehen irudi abstraktua zenak Picassoren koadro famatua ekarri zuen entzuleen gogora.

Urteak joan arren gurean oso presente dagoen garai hura gogora ekarri ostean, Elorrietak kantuan jarri zuen publikoa. *Zer*

*dakarte bihotz hautsiez aparte?* zen entzuleek egin beharreko galdera. Amaieran *Deserriko kantak* diskoan jaso gabeko Lauaxetaren *Mendigoixaliarena* interpretatu zuen eta *Nire aitaren etxea* abestiaren ostean, eskerrak eman eta agur esateko asmoa zuen gernikarrak.

Iraultzako hanka hotsak itzuli ziren, baina, antzokira eta beste bi kanta eskaini zituen Elorrietak: Sarrionandiak kartzelako deserriari eskainitako poemarekin Ken Zazpik egindako *Hemen gaude* eta Joan Oliver poetak erbestera joandako kataluniarren omenez egindako *Deserriko kontradantza*.

Minutu gutxiren buruan deserri ezberdinak "bizitzeko" aukera eman zuen Elorrietak. Eta azken txalo zaparradaren zapore gozoarekin, deserriko hurrengo geltokirako bidaiari ekin zion.

## Josu Zubiak inguruko lagun ugari batu ditu diskoaren aurkezpenean

'Argitzal' diskoko abesti guztiez gain, beste hiru eskaini zizkien herritarrei

I.E. | OÑATI

Josu Zubia abeslari oñatiarrak argitaratu berri duen *Argitzal* diskoa aurkeztu zuen egubakoitzean Oñatiko gaztelekuan. "Oso gustura geratu nintzen, barruan halako sententzia ezberdin bat eragin zidan kontzertuak", aitortu zuen berak.

Erantzun ona izan zuen diskoaren aurkezpenak, jende dezentete batu zen-eta gaztelekuan. Adin ezberdinetako jendea zen, batzuk musikariaren ingurukoak eta besteak herriko musika eskaintza ezagutzeko gogoz hurbilduak.

Orain arteko ibilbidean oso ohikoa ez badu ere, Zubiak taldekideekin batera eskaini zuen egubakoitzeko kontzertua. Eta diskoan hainbat instrumentu zein ahotsa grabatuz parte hartu duten Oñatiko Ganbara Abesbatzako kideak ere taula gainean izan ziren Zubiarekin batera. Guztira, 14 kanta interpretatu zituen oñatiarrak, *Argitzal* diskoko guztiak eta zenbait bertsiore ere bai.

Inoiz azaleratu nahi izan ez dituen sentimendu pertsonalak jaso ditu Zubiak lehen lanean

eta asteburuko emanaldian herritarren esku utzi zituen sentipen horiek guztiak.

### Hurrengo kontzertuak

Lehen emanaldiarekin pozik, hurrengoegi begira jartzeko moduan da jada abeslari oñatiarra, izan ere, lotuta ditu pare bat emanaldi datozen asteetarako. Azaroaren 28an bailaran izango da berriro, Aretxabaletan joko baitu Ostegun Akustikoak ekimenaren barruan. Hilaren 30ean, berriz, Muskizko entzuleek izango dute Zubiaren sentipenak ezagutzeko aukera.



Josu Zubia, taldekideez lagunduta, egubakoitzeko kontzertuan. | IMANOL SORIANO

# Estralurtarrak, mamuak eta gertakari bitxiak izan ziren zapatuan Oñatin

- ▶ Oñatiko Laburmetrai Rallyaren IV. edizioan genero fantastikoa izan zen landu beharrekoa
- ▶ Txantxiwood taldeak irabazi zuen lehen saria 'Doinu galduak' izeneko lanarekin

IRATI GOITIA | OÑATI

Beste urte batez, zehazki, laugarrenez, Oñati plato erraldoi bilakatu zen zapatuan. Izan ere, Oñatiko Laburmetrai Rallyaren IV. edizioa egin zuten. Argi geratu zen oñatiarren errotuta dagoela txapelketa eta urteroko zita bilakatu dela askorentzako. "Izena eman duten 15 taldeetatik hamar aurretik parte hartutakoak dira, beraz, jendea gustura dabilen seinale dela esango nuke. Gainera, aurten, guztiak izan dira talde oñatiarrak eta hori guretzako oso garrantzitsua da", adierazi zigun Aitor Perosterena antolatzaileak.

## 11 ordu, 11 lan

Aurkeztutako taldeek 11 ordutan burutu behar izan zituzten euren lanak, egunean bertan emandako gaia eta objektua landuz. Aurten, gaia beharrean, generoa izan zen antolatzaileek parte-hartzaileei proposatu zieten: fantastikoa. Bestalde, film laburrean kaseteak agertu behar zuten. Aurkeztutako 15 lanetatik 11k bete zituzten baldintza guztiak. Beraz, lau lehiatik kanpo gelditu ziren.

## Lanen proiektzioa, Santa Anan

21:30ean lan guztiak proiektatu zituzten, baita lehiatik kanpo gelditutakoak ere, Santa Anan. Txiki gelditu zen aretoa. Aitor Abaroak aurkeztutako ekitaldian, denetariko lanak ikusteko aukera izan zen: batzuk dramen oinarrituak eta beste batzuk umorean.



Txantxiwoodeko taldekideak Txankamu saria eskuetan dutela. | I.G.

Oñatiarrek izugarriko imajinarioa dutela erakutsi zuten: estralurtarrak, mamuak, alegiazko lagunak, denbora lerroan jauziak... Ikusleek barre algara ugari egin zituzten.

Lan guztiak ikusi ostean, Txankamu sariak banatzeko unea iritsi zen. LPM taldearen *Heriotzari deika* lana izan zen ikusleentzako onena (100 euroko saria). Epaimahaiak beste hiru aukeratu zituen. Iban Garate, Iñake Irastorza, Ramon Agirre, Martin Jauregiartzo eta Anton Azpiatzuk egin zituzten epai lanak. Lehen saria Txantxiwood taldearen *Doinu galduak* lanak eraman zuen, borobilen izan zelako epaileen-

tzat (300 euro). "Ez genuen irabaztea espero, lan oso onak egon dira-eta", adierazi ziguten taldekideek. Bigarren saria Rodrigez taldearentzat izan zen, teknika onenarengatik eta Euskal Herrian errotutako istorioa oinarri hartzeagatik *Casette* film laburrean (150 euro). Eta hirugarrena Risotoren *Ixiltasuna* laburmetrairentzat izan zen, besteak beste, protagonistaren lan onagatik (100 euro). Pozik ziren irabazle guztiak amaieran eta baita antolakuntzakoak ere. "Oso balorazio positiboa egiten dugu", esan zigun Perosterenak. Lan guztiak ikusgai izango dira Oñatiko Laburmetrai Rallyko webgunean.



Rodriguez taldekoak, bigarren sarituak, storyboard-a egiten. | J. ARANTZABAL



Oñatiko Foruen plazan grabaketak egiten, zapatu goizean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Denda aurrean musika jotzen, merkataritza dinamizatzen

Ibai-Artek antolatutako Azaro Musikala egitasmoaren baitan, kalera irten ziren Arrasate Musikaleko harizko-instrumentu jotzaileak zapatu arratsaldean. Zegoen giro hotza goxatzen ahalegindu ziren hiru taldetan banatuta. Izan ere, helburua merkataritza eta herria bera dinamizatzea dira.





## Aitor Izagirre

Goienako presidentea

# Zuen ekarpena, denok irabazteko

“Ez dira betiko garai onenak”, zioen abestiak. Eta bat egiten du esaldiak egungo egoerarekin. Denoi eragiten digu krisiak. Goienari ere bai. Sarrerak urritu zaizkigu. Erakunde publikoek baliabide gutxiago dituzte diru-laguntzetarako eta azkeneko urteotan geroago eta zailago da publizitatea kontratatzea, hedabide eragingorrek izan arren Goienakoak publizitaterako. Horrenbestez, egoera berrira egokitu behar izan dugu. Neurriak hartu ditugu. Baina ahalegindu gara kalitateari eusten, kaltea txikitzen. Hartzaileok igar ez dezazuen.

Hedabide asko ikusi ditugu desagertzen eta gertukoena ere ez daude egoera onenean. Hori da errealitatea. Baina gogorrari gogor egin behar zaio. Eta denok batera bultzatzea eginez gero, errazago gaituko ditugu zailtasunak. Horregatik jotzen dugu zuregan, laguntza eske: Goienak behar zaitu!

**Ekarpen txiki bati  
esker, abantaila asko  
izango dituzu**

Aurki dira 25 urte *Arrasate Press* sortu zela. Herri hedabide eredugarri haren helburuei eusten die Goienak:

euskara plazaratzea; normalizatzea. Eta zuen konpromisoa derrigorrezkoa zaigu helburuei eutsi eta aurrera egiteko. Ekarpentxi bati esker, abantaila asko izango dituzu eta denok irabaziko dugu: euskarak, zuk zeuk eta Goienak.

## GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!



## GURE MUSIKA TALDEAK

**JIM TNT**  
& THE GYPSY  
VOODOO REDNECKS



Jim Tnt & the Gypsy Voodoo Rednecks, egueneko kontzertua jo aurretik. | JAGOBA DOMINGO

# "Blues esperimentalak egitetik, ragtime edo countrya egitera egin dugu salto"

- ▶ Jim Tnt & the Gypsy Voodoo Rednecks Jaime 'Cretino'-ren proiektu berria da
- ▶ 20ko eta 30eko musika countryarekin eta bluesarekin batzen dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Jim Tnt & the Gypsy Voodoo Rednecks. Izen ero horren atzean, Jim Tnt arrasatearraren azken proiektua dago. Los Cretinos taldeko abeslari eta gitarra-jolea, Arrasateko azken *bluesman*-a den zalantzatik izpirik ez dago. Gutxi bezala, urteetan zehar soinu zaharrak defendatu ditu; eta orain, 20ko eta 30eko hamarkadetako musika oinarri edo inspirazio duen taldea sortu du. Bluesa, countrya, *ragtime*-a eta punka ditu iturri joan den egunean estreinatu zen taldeak.

Badirudi, ba, indarberrituta datorrela orain.

**Nola sortu zen Jim Tnt & the Gypsy Voodoo Rednecks?**

Hasieran, Morenorekin [Los Galernako baxu-jolea] lokalean jotzeko elkartzeko hasi ginen, eta ideia bluesa oinarri zuen proiektu esperimental bat egitea zen. Geroago, Los Galernako Jokin ere batu zitzaigun batera jotzera eta Ibairekin batera La Secta Voodoo izenpean kantuak egiten hasi ginen. Esan bezala, blues esperimentalak zen, Jon Spencer Blues Explosion bezalako taldeen

harira. Hala ere, egutegi arazoak zirela-eta, Moreno eta biok geratu ginen eta jotzen jarraitzea erabaki genuen; gainera, Moreno kontrabaxua ikasten hasi zen.

**Proiektuari buelta eman zenioten.**

Bai; bateriarik gabe geundenez, akustikoan jotzen hasi ginen. Izan ere, kontrabaxuak askotan perkusioaren lana egiten du eta nire kantu propioak eta bertsoak jotzeari ekin genion. Hala ere, buruan ideia asko nituen eta pixkanaka jende gehiago batzen hasi ginen. Ibaik harmonika hartu zuen, eta ondoren, Aretxaba-

letako *Mo-k washboard*-a; hau da, aitzina arropa garbitzeko erabiltzen zen taula hartu zuen perkusioa egiteko. *Mo*-ren aurretik, Oñatiko Arzurekin probatu genuen, gozoki kaxekin osaturiko perkusio set bat prestatu genuen, baina Arzuk ere hainbat konpromiso zituen. Batu zaigun azken banjo-jolea izan da, Jul. The Potes-en kontzertu baten ondoren harekin hitz egin ostean, segituan animatu zen, kantuak bidali eta egun gutxi batzuetan ikasi zituen.

**Orduan, boskote zarete.**

Bai, orainoz bai, baina, langabezian nagoenez, denbora libre luzea dut; beraz... nork daki.

**New Orleansetik Chicagora?**

Egiten dugun musikak bluesetik badu; hala ere, beste hainbat estilo batzen ditugu. Esate baterako, countrya, rockabillya eta 20ko eta 30eko hamarkadetan New Orleans inguruan entzuten zen ragtime eta *jug bands* bezala ezagutzen ziren taldeek egiten zuten musika. *Jug bands* horiei *zabor-jazzeroak* deitzen zieten, instrumentu errudimentarioekin jotzen zuten.

**Ze kantu entzungo ditugu zuen kontzertuetan?**

Kantu gehienak bertsoak edo moldaketak izango dira; hala ere, nire kantu propioak ere joko ditugu. Bertsoen artean: Carl Perkins-en *True Love*, Luke Winslow-en *Cocaine ragtime* klasikoa edo *CC Rider*. Baina bertso horiek ere ez dute originalekin zerikusi handirik.

**Beraz, hamarkadetan atzera egingo dugu.**

Bai; uda aurretik musika mota hau asko entzun dut, aipatutako *jug bands*-ak, *ragtime*-a... musika mota horretan guztiz sartuta nabil azkenaldian.

**Nondik dator izena?**

Alde batetik, Gypsy, ijitotik zer bait badugulako; bestetik Voodoo, taldearen sorrera gogora ekartzeko [La Secta Voodoo] eta Rednecks, ba baldarretik ere nahikoa dugulako.

**Joan den eguenekoaren ostean, zeintzuk dira hurrengo goateak?**

Hasiera baten, egubakoitzean Bergarako Laino skate parkean egongo gara eta hilaren 29an Arrasateko Iluntz tabernan. Hasiera baten diot, oraindik ez dakidalako Jim Tnt bezala joango naizen, Jim Tnt & the Gypsy Voodoo Rednecks bezala edo ni eta Jul joango garen, esaterako. Beste partaideek joateko aukerarik baldin badute, bikain; bestela ere, aurrera jarraitu beharko dut. Izan ere, kontzertuek bakarlarri bezala izan behar zuten, baina, posible den heinean, denok joateko asmoa dugu. Kontua da musika egiten ondo pasatzea, besterik ez!

**"Bertsioek ez dute originalekin zerikusi handirik"**





# Fagorren gaia inoizko jarraituena, 'Goiena.net'-en

## Bisitarien igoera %43,72koa da, iazko epealdiarekiko

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Fagor Etxetresnen albisteak inoizko bisitari kopuru handiena erakarri du azken hilabetean *Goiena.net*-era. Hain zuzen, bisitari bakarrei dagokienez, errekor historikoa egin zuen webgunek urriaren 16an, 10.750 bisitari bakarrek. Urriaren 16an egin zuen *Goiena.net*-ek, bisitei dagokienez, errekor absolutua. Egun horretan eta hurrengo bietan erreferente bihurtu zen *Goiena.net*, gainera, baita Debagoienetik eta Espainiatik kanpo ere. Hala, Google Analytics tresnak ematen duen banaketaren arabera, Frantziatik ia mila bisita heldu ziren; 652 Akitaniatik, zehazki, pentsatzekoa denez, Iparraldetik.

### Igoera esanguratsua

2013ko urriaren 15etik azaroaren 13rako epealdia hartuta, iazko urtekoarekin konparazioa eginda, %43,72ko igoera egon da bisitari kopuruan. 2012 eta 2013ko urtarril eta urriaren arteko epealdiak konparatuta, igoera %19,06koa da. Horrek esan gura du, orain arteko urteko hazkundea joera moduan hartu eta estimazio azkar baten, ia %25eko bisita igoera ekarri duela gertaerak.

### Zuzentasuna

Hain zuzen, "zuzentasuna eta kontrastea beste ezerean aurretik



'goiena.net'-en Fagorri eskainitako bi azal. | GOIENA

lehenetsi" ditu Goienak, Fagor Etxetresnen gaineko gertaeren kontakizuna egiterako orduan. Izan ere, "albistearen sorrera tokian bertan dago Goiena eta tentu handiz zaindu gura izan du bertan argitaratzen denak

herritarrengan eragin dezakeen mina". "Horren jakitun, zuhurtziaz ematen ari gara pauso bakoitza, eta datuek berresten dute asmatzen" ari garelako dio Goiatz Arana Goiena.net webguneko ardura-dunak.

## Baimendu dute gailu elektronikoen hegaldi osoko erabilpena European

J.B. | ARRASATE

Europa barruko hegaldi guztietan gailu elektronikoen (*hegal-di moduan* delakoan) hegaldi osoan zehar erabiltzeko baimena eman du du Europako Segurtasun Europar Agentziak. Baimena azaro amaiera aldera sartuko da indarrean.

Horrela, airatze eta lur-hartzean gailuok pizteko debekua kendu du agentziak tableta, telefono inteligente, musika-errepuzigailu eta liburu elektronikoenentzat. Betiere, noski, *hegal-di modua* deritzon profila aktibatuta badute.

Gailu elektronikoenak baimena, ordea, ez da orokorra,

inola ere. Galarazita segituko dute ordenagailu eramangarri tradizionalak eta gailu astunek. Horiek itzalita jarraitu behar dute eta jarlekuaren poltsikoan gordeta aireratze eta lur-hartze denboran.

### Deiak ere etorkizunean

Agentziatik diotenez, "segurtasuna arriskuan jartzeko, tresna elektronikoen erabiltzeko askatasun gehiago" eman gura dute. Aurreratu dutenez, gainera, baimen berria etorkizuneko asmoetan urrats txikia besterik ez da ze bide berriak aztertzen dabilta hegaldi barruan deiak ere egin ahal izateko.

## Denbora-lerro bat baino gehiago sortzen utziko du Twitter-ek

J.B. | ARRASATE

Erabiltzaileek aspaltik eskatzen diharduten funtzionalitate berria iragarri du Twitter-ek. Edukien aukeraketa eta aurkezpenarako bereziki interesgarria da aukera berri hau: denbora-lerroak sortzeko aukera.

### Lehenago, Tweetdeck-en

Tweetdeck-en bertsio ezberdinetara helduko da aukera hau lehenbizi. Hala, bai web, PC eta Chromerako bertsioak egun gutxitan egongo dira prest eta eta Mac-erako bertsioa, aurreratu dutenez, aste batzuren

buruan egongo da erabiltzeko moduan. Lehehengo inplementazioak oraingo astean bertan gauzatuko dira.

### Sortzeko erraztasuna

Zerrenda berria osatzeko erabiltzaileek denbora-lerro ala *timeline* berria sortu eta gura dituzten txioak zutabe horretara karriatu behar dituzte. Denbora-lerro berriak gainontzeko erabiltzaile guztientzako egongo dira erabilgarri. Twitter, gainera, APIa garatzen dabil garatzaileek funtzionalitate berri hau erabili ahal dezaten.

## Google-ek 200 milioi estekatik gora ezabatu ditu

### DMCA ez dela eraginkorra dio 'TorrentFreak'-ek, salaketek etengabe gora egiten dutelako

J.B. | ARRASATE

DMCA delakoak, Ameriketako Estatu Batuetan egile eskubideak babesteko legeak, alegia, Google-eri egile eskubideak urratzeagatik abisua jasotako estekak ezabatzeko exijitzen dio. Eskaera hori eskubideen jabeek eurek egin behar dute. Ezagutu denez, eskaerek gora egin dute nabarmen eta *TorrentFreak* guneak jakin ahal izan duenez gaur egun 200 milioi baino gehiago lirakeke jada eskaerok. Oso ohikoa da zenbait bilaketetan emaitzen zerrendan DMCA-ren ohar jada ezagunarekin topo egitea.

Kopuru orokorra emateaz gain, salaketan egileak zeintzuk izan diren ere plazaratu du *TorrentFreak*-ek eta ez du inor harririk Estatu Batuetako SGAE

-ren pareko lirakekeen erakundeak aurkitzeak zerrendaren goian. Fox, NBC, Warner ala Disney moduko korporazioek osatzen dute zerrenda. Microsoft eta Adobe moduko teknologia enpresak ere agertzen dira.

### Eraginkortasuna zalantzan

Salaketan etengabeko igoerak, *TorrentFreak*-etik azaltzen dutenez, "agerian uzten du legearen eraginkortasun eza" eta salatzen dute onuradun bakarrak eskubideak atzematen dituzten enpresak direla. Jabeek, hala ere, Google-eri geroago eta kontrol handiago eskatzen diote baina Interneteko handikiarentzat bereak ez diren edukien kontrolerako denbora eta dirua bide da hori.

## Waze integratu dute Google Maps-en eguneraketa berrian

Zirkulazioaren berri modu kolaboratiboan ematen duen Waze aplikazioa, aurrerantzean, Espainian Google Maps-ekin batera. Google Maps Android-en Play denda ala, iOS-en kasuan AppStore-era jota, bertsioa eguneratuta, automatikoki egongo dago erabilgarri Waze-ek emate duen informazio guztia.

## Parkinson gaitzaren eboluzioa neurtzeko aplikazioa kalean da

Huntington gaitzaren Nazioarteko Egunaren harira, gaitz neuropsikiatrikoen eboluzio maila neurtzeko aplikazioa eskuragarri dago Play eta AppStore denda birtualetan. *Mememtn* dauka izena eta gaitz horiei jarraipena egiteko tresnak eskuragarri jartzen ditu. Doakoa da.



HÖVDING

## Bizikleta kaskoetan iraultza

Bizikleten segurtasunean iraultza ekarriko omen duen asmakizuna aurkeztu berri dute bi neska suediarrek. Hövding dauka izena eta autoetako airbag-a bezala, aktibatu, puztu eta burura, milisemetan, egokitzen den kasko puzgarria da. Bizikleta gidariaren lepora lotzen da bufanda moduko bat eta istripurik ezean, libre dago burua.



## ZORION AGURRAK



OÑATI  
**Irma Arbaolaza**  
Azaroaren 24an, 18 urte.  
Zorionak zure *unik*  
lagunen partetik! 18 urte  
ein arren, betiko umia  
izaten jarraitu!



BERGARA  
**Sara Taboada**  
**Muruamendiaraz**  
Azaroaren 23an,  
urtebete. Zorionak! Gure  
printzesak urtetxo bat.  
Muxu potolo-potolo asko  
etxekoan eta, bereziki,  
Eleneren partetik.



ARRASATE  
**Xabat Otxandiano**  
**Jausoro**  
Azaroaren 22an, 10 urte.  
Zorionak, Xabat!  
Disfrutatu eta ederto  
ibili zure egunean. Patxo  
pilo bat etxeko danon  
partetik.



ARAMAIO  
**Izar Isazelaia Unzueta**  
Azaroaren 21ean, 7 urte.  
Zorionak eta muxu handi  
bat etxekoan eta  
aiton-amonen partetik.  
Ondo pasatu zure  
urtebetetze eguna.



OÑATI  
**Antton Oleaga**  
**Mugarza**  
Azaroaren 21ean, 7 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo-ondo ospatu zure  
urtebetetze eguna eta  
muxu pila bat etxeko danon  
eta, bereziki, Beñaten eta  
Marenen partetik.



OÑATI  
**Iker Isasti Arkauz**  
Azaroaren 21ean, 4 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Egun zoragarria pasa  
dezazula laguntxo eta  
famiakoekin. Muxu  
handi bat etxekoan  
partetik.



OÑATI  
**Ibai Buquete Diaz de**  
**Gereñu**  
Azaroaren 21ean, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo pasa dezazula zure  
urtebetetze egunean,  
famiaren eta, batez ere,  
aitaxoren, amatxoren  
eta Aneren partetik.



ARRASATE  
**Lander Iñiguez Porcel**  
Azaroaren 20an, 6 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Gure sei urteko  
gizontxoari, muxu  
handi-handi bat  
famiaren partetik.



BERGARA  
**Aimar Sotil Marchena**  
Azaroaren 19an, 7 urte.  
Zorionak, potxolo! Jada  
zazpi urte. Oso ondo  
pasatu lagunekin eta  
famiarekin. Besarkada  
goxo-goxo bat denen  
eta, bereziki, Mariñeren  
partetik.



ARRASATE  
**Luis Orobengoa Orue**  
Azaroaren 19an, 75 urte. Zorionak munduko aitita  
onenarentzat Beñaten, Lukenen, Oierren eta Jokinen  
partetik. Patxo potolo bat zuretzat!



OÑATI  
**Maialen Larrañaga**  
**Igartua**  
Azaroaren 18an, 24 urte.  
Zorionak eta urte  
askotarako! Hasi  
txokolata eta patata  
tortila eitten. Ointxe  
goiaz! Patxo handi bat.



ANTZUOLA  
**Unai Alonso Rodrigo**  
Azaroaren 18an, 7 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo-ondo pasatu  
eguna, etxeko danon  
partetik.



ARETXABALETA  
**Markel Valle Moles**  
Azaroaren 18an, 2 urte.  
Zorionak, Markeltxo,  
zure bigarren  
urtebetetzean. Ederto  
ospatuko dugu eguna.  
Muxu potolo bat  
aitaxoren eta amatxoren  
partetik.



ARETXABALETA  
**Unax Larrinaga**  
**Urzelai**  
Azaroaren 18an, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo-ondo pasatu  
eguna eta patxo potolo  
bat etxekoan partetik!



ARETXABALETA  
**Aner Elorza Muñoa**  
Azaroaren 17an,  
urtebete. Zorionak,  
bihotza! Etxeko danon  
partetik muxu potolo bat  
eta egun polita pasa  
dezazula!



ARRASATE  
**Malen Altube Sedano**  
Azaroaren 17an, 9 urte.  
Zorionak, Malen. Egun  
zoragarria pasa  
dezazula. Muxu handi  
bat aitaren, amaren eta  
Alaitzen partetik.



ESKORIATZA  
**Eskoriatza Garate**  
Azaroaren 16an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun,  
aitaxoren, amatxoren eta  
Naroaren partetik. Patxo  
potolo bat eta oso ondo  
pasatu zure egunian.




OÑATI  
**Zihara Rubio**  
**Markuleta**  
Azaroaren 16an, 7 urte.  
Zorionak eta oso ondo  
pasatu egun berezi  
honetan, zure familia  
danaren partetik,  
printzesa!



BERGARA  
**Manex Balentziaga Galfarsoro**  
Azaroaren 16an, 7 urte. Zorionak, *matxote!* Primera  
pasatu larunbatean, zure merendola eta guzti. Asko  
maite zaitugu! Sara, amatxo eta aitaxo.



BERGARA  
**Irati Olabarria**  
**Lazkano**  
Azaroaren 15ean, 12  
urte. Zorionak eta ondo  
pasatu zure urtebetzea.  
Muxu handi bat danon  
partetik.



BERGARA  
**Urko Rodriguez**  
**Moreno**  
Azaroaren 15ean, 2 urte.  
Zorionak, maitxia!  
Ondo-ondo pasatu zure  
urtebetetzian eta muxu  
potolo bat etxeko danon  
partetik!



BERGARA  
**Maren Leston Ezenarro**  
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak, printzesa!  
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Zortzi  
muxu potolo etxekoan eta, bereziki, Oihanen partetik.



OÑATI  
**Oier Yaniz Ortigosa**  
Azaroaren 15ean, 11  
urte. Zorionak, Oier, zure  
hamaikagarren  
urtebetetzean. Oso-oso  
ondo pasatu eguna! Mila  
muxu etxeko danon  
partetik.



ELGETA  
**Unax Agirre Osa**  
Azaroaren 13an, 4 urte.  
Zorionak Arrasateko eta  
Aretxabaleto familia  
eta lagunen partetik eta  
gorde txokolatetzko  
pastel zatitxo bat  
guretzako ere. Ondo  
pasatu!



OÑATI  
**Lier Esnaola Osinaga**  
Azaroaren 13an, 4 urte.  
Zorionak, artista!  
Azkenian heldu da zure  
eguna! Ondo pasatu eta  
egun putz fuerte  
kandele! Patxo handi  
bat etxeko danon  
partetik.



OÑATI  
**Danel Diaz de Gereñu**  
**Larrañaga**  
Azaroaren 13an, 3 urte.  
Azkenian hiru urte!  
Zorionak eta muxu bat  
famiakoan partetik!



ARRASATE  
**Maren Alonso Lopez**  
Azaroaren 13an, 7 urte.  
Zorionak, Maitia! Zazpi urte  
etxeko printzesak. Ederto  
ospatu eguna. Laztan goxo  
potoloak etxekoan,  
aitaxoren, amatxoren eta  
Beñaten partetik.  
Muxutxuek, marimatrak!



ARRASATE  
**Jone Gorosabel**  
Azaroaren 13an, 10 urte.  
Zorionak, Jone eta  
amama, zuen  
urtebetetze egunean.  
Oso ondo pasatu eguna  
eta muxu handi bana  
etxekoan partetik.



ARAMAIO  
**Elaia Lasaga Garai**  
Azaroaren 11n, 11 urte.  
Etxeko guztien partetik,  
zorionak eta muxu handi  
bat.



OÑATI  
**Eneko Bengoa Igartua**  
Azaroaren 11n, 2 urte.  
Zorionak, *prexiako!* Bi  
urtetxo! Ondo-ondo  
pasatu eguna eta patxo  
handi bat aitaxoren,  
amatxoren eta Markelen  
partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaituz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurrak  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



**Sara Ribas Idigoras**

Arrasate. 3,500 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Olatz eta Julen. Argazkian, Sara, gurasoekin.



**June Rico Olabarrieta**

Arrasate. 3,100 kilo. Azaroaren 11n. Gurasoak: Eider eta Iban. Argazkian, June, aitarekin.



**Erik Palomar De Marcos**

Bergara. 3 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Naiara eta Jesus. Argazkian, Erik, aitarekin.



**Hodei Iriondo Ugarte**

Oñati. 3,140 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Aintzane eta Julen. Argazkian, Hodei, gurasoekin.



**Aiur Biain Ezkibel**

Oñati. 3 kilo. Azaroaren 11n. Gurasoak: Arantzazu eta Aritz. Argazkian, Aiur jaioberria sehaskan lo.



**Manex Goitia Pagaldai**

Bergara. 3,5 kilo. Azaroaren 7an. Gurasoak: Jone eta Josu. Argazkian, Manex sehaskan lasai-lasai.



## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**  
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.  
 Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

# zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,  
**10 euroko bonua\*** egingo dizue opari  
 Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua


Musakola 11 ARRASATE  
 Tel.: 943 71 10 30



  

zurekin

\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Gehitu	Primoetako printzerria	Zer lekutara?
	Herri baxenabartar	* Bergarako auzoa	Gar garden eta biguna
	Gizon izena		
	Bokal errepikatua		
Hamabi	Afrikako estatua		
Herrikirola	Ubide		
			Alderantziz, Andeetako musika tresna
Azkena eta lehena	Talde, multzo		
Basozain	Toka, da		
Nauka	Bokala	Neona	
Erraz gal-tzen dira	Oxigenoa	Kontsonantea	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	A	R	A	G	A	L	K	O	R	A	V	A
N	E			A	U	N						
N	I	Z	A	I	N	D						
A				S	O	R	T	A			Z	
				R	A	T	I	R	A		S	O
				L	A	G	O	L	A		D	
				A	N	D	E	R				
				E	R	A	N	G	O			
				A								

A	O	N	A	B	E	M	I					
N	O	N	G	S	T	O	N					
A	T											
F	A											
F	A											
A	A											
B												
A	O											
A	O											
M												
A	B											

8	1	2	5	3	7	4	9	6
4	3	7	2	9	6	1	8	5
6	5	9	1	8	4	7	3	2
7	4	1	8	5	3	6	2	9
2	6	8	6	7	1	3	5	4
3	6	5	9	4	2	8	1	7
1	2	3	7	6	9	5	4	8
5	7	4	3	2	8	9	6	1
6	8	6	4	1	5	2	7	3



Ezetz igarri:  
Amaiak.

SUDOKUA

	8			1		2		3
				2	8			
	2			6		5	4	8
3				4		8		7
	9	8		7				
7								
6				8				
		7	2					5
8	2	5		7	4	9		

HIZKI SALDA

Topa itzazu Ipar Amerikako bost hiriburu

A	M	E	V	A	M	A	B	S
H	A	B	A	N	A	U	E	M
V	B	I	U	A	N	A	A	O
A	N	A	S	S	A	U	B	O
V	A	D	N	Y	G	A	A	T
A	M	B	A	M	U	F	A	T
O	I	A	A	E	A	A	T	A
K	I	N	G	S	T	O	N	W
A	O	N	A	B	E	M	I	A

EZETZ IGARRI!

Tomasek, Kepak, Jonek, Anek eta Amaiak testa egin dute. Amaiak lortu du Tomasek baino puntu gehiago. Jonek lortu du Kepak baino puntu gutxiago, baina Anek baino gehiago. Kepak lortu du Tomasek baino puntu gutxiago. Nork lortu du puntu gehien?

## Lanera bidean lo kuluxka lasai egiteko

Tramankulu horrekin, akabo lo hartu eta burua albokoaren sorbaldan jartzea, lepoko mina eta halako kontuak.

[www.gonzoo.com](http://www.gonzoo.com)



## "Gabonetako aparteko ordainsaria ez zen kendu, baizik eta denboran aurreratu"

CRISTOBAL MONTORO | OGASUN MINISTROA

Deigarria da PPkoei zenbat gus-tatzen zaien denbora kontuekin jolastea: Luis Barcenasi kalte-ordaina diferituan ordaindu zitzaioela esan zuen lehenengo Cospedalek; orain, Montorok dio 2012ko Gabonetako ordainsaria 2015ean ordaintzea dela asmoa.

[www.20minutos.es](http://www.20minutos.es)



Max. 12°

Min. 7°

Oso hodeitsu egongo eta euri txikia egingo du, sarriago kantauri isurialdean.

[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2013-11-18

HAMARREKOA

**Txuma Murugarren** Sasoi Ilunak taldean ezagutu genuen eta bakarkako ibilbide oparoaren ostean '14 abesti eta hamahiru istorio txiki' aurkeztu du, Angel Untzuren elkarlanean egindako diskoa. | TXOMIN MADINA

## "Musika entzule moduan oso diziplina gabea naiz"

**1. Lehen diskoak taldean, gero bakarka, orain bikotekidearekin.** Proiektu berezia da, espero ez genuena. 2000n, Angel Untzuren kantu batzuk egin eta eskatu zidan letra jartzeko. Nor bere kontu pertsonaletan zebilen, eta ez genuen grabatu. Orain *berriz elkartze* bat izan dugu, interesgarria oso.

**2. Musika harena, hitzak zureak. Eroso paper banaketarekin?** Oso eroso; zeinekin eta Angel Untzuren! Musikari aparta da, beti iruditu zait beste liga baten jokatzeko duela. Harekin lan egitea, ikastea eta gozatzea izan da.

**3. Hamalau abesti eta hamahiru istorio. Non dago kokka?** Kantu baten bertsiu minimalista egin eta letra gabe utzi dugu. Kantua birbegiratu dugu nolabait esateko musika kutxa batekin; pintzelkada bat bezala geratzen da.

**4. Bidaia etengabea duzue aurkezpen kantua. Zergatik hau?** Ez dugu askorik pentsatu. Asko gustatzen zitzaigunetako bat zen. Kantu bakoitzak bere lekua du, eta uste dugu honek ukitu baiko-rra duela, soinu *happy*-a. Diskoko lehena ere bada. Bat aukeratu behar genuen, eta hau izan da.

**5. Lehenengoz entzuteko, noiz eta nola gomendatuko zenidake?** Ez da disko zaila; entzunaldiekin gehiago sartzen da. Ez da entzun behar azterketa zail batera bazin-doaz bezala, beste zerbaitean zabil-tzala baizik; harrapa zaitzan utzi.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Hizkuntzak, kutsagarri"

"Hizkuntzak kutsagarri egingo nituzke: hizkuntza bat entzuten baduzu, hazia bertan geratzea; hori zure barruan loratzea, eta fruituak ematea; azkenerako hizkuntza horren jabe egitea. Horrela izan beharko luke hizkuntza guzti-guztiekin, baita euskararekin ere, noski".

**6. Bakarkako lehen lau diskoak bost urtetan; azkenetik hona, hiru pasa dira. Gauzak patxada handia-goarekin hartzen dituzu?** Bai. Disko bat egitea lan handia da, eta lehenetasuna duten beste gauza batzuk dauzkat orain. Desengainua dut: lan handia egin eta erantzun urria jasotzea. Meditazio garaian nago, baina ari naiz beste gauzatxo batzuetan lanean.

**7. Zure abestiak entzunda bakarrik ezagutzen zaituenak zein punturaino ezagutzen zaitu?** Txuma bat bakarrik ezagutzen du, baina anitzak garenaz... Nire letrak zintzoak dira, zintzoegiak batzuetan. Askotan diot lirika artearen-dako dela eta bizi izateko bestelako gakoak behar ditugula.

**8. Kontzertuak ez ei dituzu oso gustuko.** Oso ondo pasatzen dut erantzuteko norbait dagoenean. Baina beti ditut dudak nola irtengo den, jendea egongo den... Azkenaldian, gauzak hotz daude. Baina sinesten dut egiten dudanean; merezi duela uste dut.

**9. Nolako musika entzulea zara? Oso diziplina gabea: denetarik entzuten dut. Irratian zerbaite entzun eta gustatzen bazait, bilatzen dut. Irrati saio espezializatuak eta dira nire erreferentzia.**

**10. Euskara irakaslea zara. Inoiz jarri diezu ikasleei zure abesti bat praktikatzeko?** Ez; azkenean jakiten duten arren, ez dut nahi bi Txumak nahastu.

AZKEN BERBA

ITXARO ARTOLA



Eta hala bazan... zer?

**U**rdaburu jauna Jon eta Josu semeekin bizi zen etxe polit batean, eta etxe politaren ondoan lore politikak zeuzkan lorategian eta auto polita estalpe batean. *Etxean emaztea zeukan.* Ironiaz beteriko hitz horiekin abiatzen da *Urdaburutarra*. Familia osoak eta elkarrekin irakurtzea merezia duen album ilustratu ederra. Ederra, bai itxuraz, bai mamiz. Haur literaturan sailkatua egon arren, etxeko guztiei emango dielako zer pentsatua eta zer ikasia. Errealismo gordinez, hitz zorrotz eta irudi indartsuz, eredu patriarkalaren arabeko genero rolen banaketa gogor kritikatzeko du, emakume askoren egoera familiarra islatuz. Edo gehien esan beharko genuke oraindik ere? Ze, ea! Zenbat etxetan ez darama amak beregain familiako arduren zama handiena? Zenbat etxetan jokatzen dugu gurasook koherentziaz seme-alabei irakatsi nahi omen dizkiegun justizia eta berdintasun-baloreekin eta benetan, egunerokotasunean, ematen diegun ereduarekin? Beharrezkoa ote, gauzak aldatzen hasteko, *Urdaburutarren* istorioan bezala, egun batean, kokoteraino dagoen emazteak hanka egin eta Urdaburu jaun-semeen bizimodu idilikoa Urdaburutarren amesgaizto bilakatzea?

RPS: 228/10

**AG**  
AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

**Udazken-neguko eskaintza**

Aurpegi tratamendu programak  
**+ saioak opari**  
Etorri eta informa zaituz!

**230 €-ko lau sari zerbitzu estetikoetan**

Egindako zerbitzu estetiko bakoitzagatik,  
230 €-ko lau sariren zozketan parte hartuko  
duzu zerbitzu estetikoetan erabiltzeko.

Eskaintza baliagarria:  
2013ko abenduaren 2tik urtarrilaren 3ra

